

ISRAELEN ARMAK: «Lau armatik hiru ezingo lirateke ekoitzi bankuen inbertsiorik gabe» > 8

SOINUAREN LIBURUTEGIA: Romualda Zuloaga, panderoa astinduz jaia hauspotzen zuen galdakoztarra > 12

2025eko otsailaren 1a | XIX. urtea • 913. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info

«IKASTOLAK EZ DIZKIO ATEAK INOIZ INORI ITXI, ETA HORRELA IZATEN JARRAITZEA NAHI DUGU»

ZARAUZKO SALBATORE MITXELENA IKASTOLAK 140.000 EUROKO ISUNA JASO DU 2023-24 IKASTURTEAN, HEZKUNTZA SAILAK MATRIKULAZIO-KOPURUA JAISTEAREN ONDORIOZ, BERTAN MATRIKULATU EZINIK UTZI NAHI ZITUZTEN ZORTZI FAMILIEI ATEAK ZABALTZEAGATIK. BERTAN IZAN GARA GERTATUTAKOAZ HAUSNARTZEKO. > 22 Maialen ANDRES | FOKU



Arduraduna: Amagoia Mujika Telleria. **Erredakzioa:** Asier Aiestaran Iruretagoiena, Mikel Urdangarin Irastorza.

Argitaratzailea: Astero. **Lege Gordailua:** SS-77/07. **Helbidea:** Portuetxe 23-2a. 20018 Donostia. P.K.: 1099. Tel.: 943 31 69 99 / Faxa: 943 31 69 98. **e-posta:** info@gaur8.info. **Publizitatea:** Euskal Prensa. Tel.: 94 424 72 06.



4



8



12



«Lau tulipanak» bezala ezagutzen diren kazetarien auzia epaiketara eramán dute El Salvadorren 04

Bankuen finantzazioa ezinbestekoa dute Israeli armak saltzen dizkioten enpresek 08

Romualda Zuloaga: panderoa eta festa maite zituen bizkaitarra 12

Gastronomiaren antropologia: Itsasoaren ardora begira 17

Zarauzko Ikastolako ordezkariak: «Ikastolen proiektuarekiko errespetua dago jokoan» 22

Laudioko ikasleek Saharako kanpalekuetara egindako bidaiaren kontakizuna 27

Juantxo Egañaren behatzulotik 31



17



27

SINADURAK:

- 03 **Mikel Urdangarin Irastorza:** Euskaraz eta kulturartekotasunaz
- 10 **Ula Iruretagoiena Busturia:** Datorren iraultza
- 16 **Amaia Ballesteros**
- 20 **Irati Arriola:** Artea, norberaren ispilu eta bizitzarako gida
- 21 **Xabier Izaga Gonzalez:** Auschwitz gogoan, gaur egungoa normalizatuta
- 26 **Itzea Urkizu Arsuaga:** Ilbeltza
- 25 **Miren Azkarate Badiola:** Larrialdetik indarraldira
- 30 **Itziar Aldabe Arregi:** Erabili bai, baina ulertzen ditugu adimen artifizialean oinarritutako sistemak?



{ datorrena } **Mikel URDANGARIN IRASTORZA**

Euskaraz eta kulturartekotasunaz

Migrazioa, euskara eta kulturartekotasuna ohiko mintzagaiak dira. GARA eta GAUR8n ere izaten ari da isla azken hilabeteetan: Andoni Olariaga, Safia El Aaddam, Leire Amenabar, Xabi Iraola, Alaitz Aizpuru... Zein baino zein interesgarriago aritu dira, egia esan! Horietan oinarrituta, hona hemen zenbait ikaspen eta iruzkin.

Hasteko, migrazioa errealitate ekidinezina da. Inoizko Euskal Herri pluralenean bizi gara eta datozen urteetan are pluralagoa izango da. Iraolak esaten duen bezala, ez dago erronka bezala ulertu eta estrategiak eraginkortzen ahalegintzea besterik. Etikoki ez ezik, baita estrategikoki ere: nola eraikiko dugu gehiengo independentista bat gizartearen herenari baino gehiagori entzungor eginda? Nola izango da aske eta berdinen Errepublikak herritarrak eta azpi-herritarrak badaude?

Kualitatiboki ere funtsezkoa da: «Herririk gabe ez dago estaturik, eta kohesiorik gabe ez dago herririk», dio Iraolak. Nik zera gehituko nuke:

herri-kohesiorik gabe, ez dago hizkuntzarik ere. Joxe Azurmendik errepikatzen duen eran, hizkuntza bat, gramatika, hiztegi edo altxor bat beharrea, hizkuntza-komunitate bat baita: hizkuntzak abstraktuki beharrea norbaitekin komunikatzen gaitu, eta elkarren arteko elkarriketa etengabea birsortzen da. Elkar topatzeko zubirik ezean, nekez izango da elkar-hizketarik eta, ondorioz, hizkuntzarik.

Hala izanik, ezinbestekoa da elkarren arteko aliantzak josi, elkarguneak bilatu eta kulturartekotasunean sakontzea. Hau da, “besteen” aitortza eta errespetutik, elkarren arteko elkarrekintza eta nahastera pasatzea. Izan ere, Olariagak dioenez, arrazismoa ez da soilik “besteen” gutxiespen eta jazarpenean oinarritzen. Arrazismoa gizartea sailkatzeko sistema bat den neurrian, “besteak” goratu edo egurtu, “besteak” eta “gu” arteko bereizketa naturalizatuan bertan datza arazoa.

Beraz, nola eraiki “gu” berri eta askotariko bat? Ezin da jokalekua neutrala bailitzan planteatu. Aizpuru ohartzatzen duenez, «arrisku bizian dagoen kultura batean,

politikaz ezer jakin nahi gabe kulturaz ari-tzea egoera ez ulertzea edo oso ondo ulertu eta iruzur egitea da». Kulturartekotasuna kultura arteko botere erlazioek blaituta dago eta: zein kultura dira aitortu beharreko diferentziak (“besteak”) eta zeintzuk normalak? Estatu espainol eta frantsesean, begi bistakoa da (horrexegatik dago egiteke “Ocho apellidos españoles” filma).

«Eleaniztasun diglosikoan» (Amenabar *dixit*), nahasteak ere ez dira ausazkoak izaten. El Aadamek kontatzen duenez, «Frantziatik edo Londrestik badatoz, ‘zein ongi, elebiduna zara’ eta halakoak esaten dira. Baina zure hizkuntzak ez badira pertsona zurienak edota Europako herrialdeetakoak, poliglota izatea negatiboa da». *You know*, hizkuntza-aniztasunak baino, espainola, frantse-

«Elkar topatzeko zubirik ezean, nekez izango da elkar-hizketarik eta, ondorioz, hizkuntzarik»

sa edo ingelesa (hots, hizkuntza normalak) hitz egiteak egiten baitzaitu “mundutar”. Euskal Herrian ere ezaguna da supremazismo hori: gutxituek hizkuntza eta kultura nagusia derrigor jakin behar dituzte Konstituzioz; nagusiek, aldiz, ez dute zertan “bestea” ezagutu, eta horretarako emandako pauso ñimiño bakoitza “inposaketa” eskandalagarritzat salatu eta indargabetzen da.

Hortaz, “gu” berri bat eraiki behar da, bai, baina euskararen ardaztasunetik. Bide horretan, Olariagak galdera iradokitzailea egin du abertzaletasunaz izandako solasaldian: «Nola eraiki aniztasunaren diskurtso eta praktika Euskal Herritik?». Hizkuntza politika burujabeen eskutik, zergatik ez bihurtu euskalduntasuna «diferentziak kudeatzen dituen txapela»? Alegia, diferentzia indiferente bat gehiago beharrea, zergatik ez izan diferentzia ezberdinei harrera, aitortza eta bultzada eskainiko dien aterki komuna?

Hori zer izango litzatekeen irudikatzen hasi, eta Korrikako Irun eta Hendaia arteko irudia etorri zait gogora. Geroaren ernamuina ote? Hala bedi! “J’accuse”. •

Koos Jacobus Andries Kosterrek Teologia ikasi zuen Amsterdamen, baina kazetaritzarekin maitemindu egin zen Holandako irrati emandegi batean lan egiten ari zela. Horrek Latinoamerikako errealitatea gertutik eza-gutzeko aukera eman zion. Txilen Augusto Pinocheten diktadura indarrean zegoela, atxilotu egin zuten. Ondoren, Perura, Mexikora eta El Salvadorra joan zen, non Oscar Arnulfo Romero San Salvadorreko artzapezpikua elkarrizketatu zuen. 1980ko martxoaren 24an hil zuen Romero heriotzaren eskudroi batek, meza ematen ari zen bitartean, giza eskubideak eta adierazpen askatasuna defendatzeagatik eta, berdintasun eza, heriotzaren eskudroiak eta sarraskiak salatzeagatik. Bere homilia etxe guztietan entzuten ziren. Romeroren heriotzak gogor kolpatu zuen Koster, eta El Salvadorreko errealitatera gehiago hurbildu zuen gertaera horrek. 1982ko otsailaren 23an, 46 urte zituela, El Salvadorra iritsi zen Mexikotik, hiriburuko egunerokotasuna eta gatazka armatuaren guneak IKON telebista katerako jasotzeko asmotan. Berarekin batera, Jan Kuiper, Joop Willemsen eta Hans ter Laag joan ziren.

Martxoaren 28an Biltzar Konstituziogilea aukeratzeko hauteskundeak iragarrita zeuden El Salvadorren. Nazioarteko 700 kazetari inguru zeuden Erdialdeko Amerikako herrialdean gatazkari eta hauteskunde jarraipena emateko.

Bi urte lehenago, 1980ko urriaren 10ean, FMLN (Frente Farabundo Martí para la Libe-

ración Nacional) sortu zen. Bost talde politikok eta gerillariak osatzen zuten: El Salvadorreko Partidu Komunistak (PC); Askapenerako Herri Indarrak (FPL); Herriaren Armada Iraultzaileak (ERP); Erresisten-

tzia Nazionalak (RN) eta Erdialdeko Amerikako Langileen Alderdi Iraultzaileak (PRTC).

El Salvadorrek eta FMLNren borroka iraultzaileak nazioarteko herrialdeen arreta bereganatu zuten. Hedabide ga-



LAU TULIPANEN KONTRAKO SEGADA

El Salvadorren 1982an Armadak hil zituen lau kazetari holandarren auzia epaiketara eraman dute

 **HISTORIA /** Ainara LERTXUNDI

Koos Jacobus Andries Koster, Jan Corenlius Kuiper Joop, Johannes Joop Willemsen eta Hans Lodewijk ter Laag kazetari holandarrak, «lau tulipanak», El Salvadorren hil zituzten gatazka armatuaren testuinguruan, 1982ko martxoaren 17an. Indar Armatuetako Antonal Batailoiko patruila baten segadan erori ziren, Chalatenangora zihoazela. Ikerketa duela lau urte zabaldu zuten berriro, eta iazko abuztuan epaitegi batek auzia epaiketara eraman zuen.

rrantzitsuenek korrespontsalak zituzten, nahiz eta garai horretan El Salvadorren kazetaria izatea arrisku handiko lanbidea izan.

Iturri batzuen arabera (Mugarik Gabeko Kazetariak), 17 kazetari hil zituzten eta beste bat desagerrarazi zuten El Salvadorreko gatazka armatuan. Beste iturri batzuek, ordea, Prentsa Askatasunaren Behatokiak adibidez, 1980tik 1992ra 36 kazetari hil edo desagerrarazi zituztela diote. Heriotzaren eskudroiak izan ziren erantzuleak kasu gehienetan,

Goian, Holandako lau kazetariak, lau «tulipanak», Comunicandonos Fundazioak igorritako artxiboko irudi batean. FUNDACIÓN COMUNICÁNDONOS

baina enfrontamenduetan eta segadetan ere hil zituzten. «Gure betebeharra zen miseria horretara itzultzea. Itzuli behar genuen ez bakarrik informatzeko, baizik eta botere-tsuak gure presentziarekin gogaitzeko», adierazi zuen Gijs Wandersek, Kosterren lankide eta lagunak.

1982ko hasieran, heriotzaren eskuadroiek 35 kazetarien izenekin zerrenda bat utzi zuten irrati emandegi batean. Heriotza mehatxuak jasotzen zituena zerrenda hura hoteletako pasilloetan eta prentsa bulegoetan azkar batean zabaldu zen. Izendatuta azaltzen ziren kazetariei gerrillaren aldekoak izatea eta nazioarteko komunismoa zabaldu nahi izatea leporatzen zieten.

“The New York Times”, “The Washington Post”, “The Miami Herald”, “Newsweek”, “The Associated Press”, “ABC”, “NBC”, “Voice of America”, “British Broadcasting Corp” eta “United Press International” hedabideetako kazetariak, besteak beste, zerrendatu zituzten. Baina egun gutxitara hil zituzten lau kazetari holandarrak ez ziren zerrenda horretan ageri.

ATXILOTUAK ASTEBETE LEHENAGO

Hil zituzten egunean, 1982ko martxoaren 17an, Chalatenango zihozan FMLNren kanpaleku batean erreportaje sorta bat egitera. Haiekin, Martin izeneko gerrillari bat zihoan. Segadatik bizirik atera zen bakarria izan zen. Kazetari bezala identifikatuta egon arren, eraso egon zieten.

Soilik astebete lehenago, martxoaren 11n, atxilotu egin zituzten San Salvadorreko Alameda hotelean. Haien logelak goitik behera miatu zituzten.

Antza, Kosterrek FMLNeko kide batekin harremana egin

zuen. Informazio iturri bat izan zitekeelakoan, paper zati txiki batean bere izena, telefonoa eta hotelaren helbidea idatzi zituen –«enHotelAlamedahabitación418tel239999holandés»-. Hiru izar eta bost solairu zituen Alameda hotela San Salvadorreko erdigunetik kotxean lau minututara zegoen. Egiaren Batzordearen arabera, militarrek gerrillari hura jarraitu zuten eta ihesean papertxoak erori zitzaion.

Komisarian kazetariei egin zieten galdeketa aktak beste bertsio bat jasotzen du. Horren arabera, militarrek Jorge Luis Mendez izeneko gerrillaria hil zuten eta poltsiko batean papera atzeman zioten.

Bake Akordioak sinatu arte indarrean egon zen Ogasun Poliziaren hamar polizia Kosterren bila joan ziren zibilez jantzita Alameda hotelera. Kuartel nagusira joateko «gonbidapena» luzatu zioten. Bere lankideek berarekin joatea erabaki zuten.


«Biktinarioak beti erdigunean egon dira. Beti boterean edo boteretik gertu egon dira, edo boterean daudenen lagunak dira. Memoria ezabatzea nahi dute», adierazi du Oscar Perezek

«Lehenengo aldiz goi mailako militarrek eta Defentsa ministroa izandakoa eseriko dira akusatuen eserlekuan. Epaiketa honek, gainera, beste batzuk bultzatu ditzake»

Kosterrek FMLNrekin loturirik zuenik ukatu egin zuen eta ez zuela «terroristarik ezagutzen» nabarmendu zuen. Galdeketa ostean, aske utzi zituzten. Momentu hura betiko erregistratu nahi izan zuten, eta gerora ikono bihurtu den taldeko argazkia atera zuten –ezkerraldeko orrialdean ikus daitekeena–.

Egiaren Batzordearen arabera, martxoaren 16an Infanteriaren Laugarren Brigadaren Estatu Nagusiko ofizialek bilera eguna zuten, horien artean Mario A. Reyes Mena koronela



Lau kazetarien heriotzak jasotzen dituen «La Emboscada» liburuaren aurkezpena El Salvadorren. FUNDACIÓN COMUNICÁNDONOS



eta eliteko Atonal Batailoiko buruak zeuden. Inteligentzia-zerbitzuen txostenek jasotzen zuten, lau kazetariak gerrillariak elikagaiak eramateko egiten zuten bidetik pasatzeko asmoa zuten, Santa Ritatik gertu. Ogasun Poliziak jarraitzen egin zizkien lau kazetariei gerrillariaren poltsikoan aipaturiko paper zatia atzeman zutenetik. Tiroz josi zituzten, bai beraiek baita beraiekin zihozan bi gerrillariak ere. Hirugarren batek ihes egin lortu zuen. Lurrean motxila, arropa, pelikula zintak... barreiatuta gelditu ziren.

Lau «tulipanen» gorpuak Amsterdamgo Schipholeko aireportura iritsi ziren 1982ko martxoaren 27an. Hiletak irratan eman ziren zuzenean, telebistako albistegietan ere oihartzun handia izan zuten. Arratsaldeetan, Holandako irrati publikoak lau kazetariak El Salvadorren egindako grabaketak zabaldu zituen.

Hans van Gerven eta Jan Schmeitz kazetari holandarrek errekonozitu behar izan zituzten gorpuak. «Hauteskundeetan testuinguruan, kazetari asko geunden El Salvadorren. Interes handia nuen ulertzeko nola biziraute zuten pertsonen egoera diktatorialean. Zein zen askapenaren teologiaren eragina eta Romero apezpikuarena, batetik, eta klero kontserbadorearena, bestetik. Jende arruntaren eta pobreaken biziraupenaren aldeko borroka puri-purian zegoen. El Salvador mundu mailako arazoa zen garai horretan. Inteligentzia-zerbitzuek gertutik jarraitzen gintuzten. Hoteleko hall-ean geundenean, adibidez, beti zegoen norbait gu behatzen. 'Mendebaldeko kazetari guztiak hil beharko lituzkete', esan zuen ozen batek. Horretaz primeran gogoratzen naiz,



zeren Koos eta bere lantaldea atxilotu zituzten egun berean izan zen. Jan Schmeitz eta bioi egokitu zitzaigun gorpuak erre-konozitzea. Ondoren hotelez aldatu ginen, Camino Real-era joan ginen, bertan nazioarteko kazetariak egon ohi ziren. Gau horretan, kazetarien izenekin osatutako zerrenda beltzak zeuden zurrumurruak zabal-tzen hasi ziren. Hilketak oso ondo planifikatuta zeuden, iritsi zen lehen informazio sailaren arabera», gogoratu zuen Van Gervenek “La emboscada” liburuan.

HAIEN AZKEN LANA LA MARIONAN

Erbesteratu behar izan zuen Roberto Cuellar abokatu salvadortarrak hitz hauekin gogoratzen du Koster: «Nortasun urduriko tipoa zen, bere kontaktuetan ausarta zen, mugimendu iraultzaileekin, militarrekin, alderdi politikoetako funtsezko pertsonaiekin harremanak zituen eta. Herbehereak demokrazia kristau indartsuaren sorleku izan ziren eta bandera horrekin kazetari batzuk iritsi ziren, horien artean IKON katea».

Lau kazetarien azkeneko lana 1982ko martxoaren 14an La Esperanza o Marionako espetxean preso zeuden hamar sindikalistei egindako elkar-riketa izan zen. Handik bi urtetara, 1984an, aske utzi zituzten eta Holandak babes politikoa eman zien.

«Oso lagunkoiak iruditu zitzaizkigun. Preso politikoen egoera eta espetxeetako errealitatea zein zen jakin nahi zuten. Kosterrek galderak egiten zituen. Preso politikoen batzar txiki bat eratu genuen, argazkiak atera genituen. Horietako irudi batean, aurpegia eta hankak azidoarekin erre zizkieten kide bat ageri zen. Ziegak grabatu zituzten. Sei pertsonentzat ziren arren, garai horretan ziega bakoitzeko hamabi lagun geunden. Bi astero, Polizia Nazionala, Guardia Nazionala, Armada... gu kolpatzera etortzen ziren. Kazetari holandarrek gure bizi baldintzak ezagutu nahi zituzten. Sekula ez genuen pentsatuko bisita hura izan eta egunetara hilko zituztenik. Ostegun goiz batean, guardiek ahoz behera jartzera behartu gintuzten eta gure gainean ibil-

Ezkerrean, Oscar Perez, Comunicándonos fundazioko presidentezuzendaria. Alboan, segada izan lekura kazetaritza ikasleekin egiten duten txango bat. FUNDACIÓN COMUNICÁNDONOS

tzen hasi ziren. Fusilen kulatarekin gu jotzen hasi ziren, behin eta berriro. Bat-batean, guardia bati entzun nion ‘hauek dira igandean kazetari holandarrek elkarriketatu zituzten horiek’. Beste guardia batek zera erantzun zion: ‘Horiek atzo hil ziren enfrontamendu batean’. Orduan jakin genuen hil egin zituztela, eta espetxean sartzen zergatik utzi zieten pentsatu genuen berriro, hedabideei ez baitzieten espetxean sartzen uzten, are gutxiago atzerritarrei», esan zuen Alfredo Hernandezek, preso zegoen sindikalistetako batek.

1993ko martxoaren 20an onartu zen Amnistia Legearekin auzia itxi zuten. 2016ko uztailaren 13an, El Salvadorreko Auzitegi Konstituzionalak indargabetu zuen, eta 2018ko martxoaren 13an, Comunicándonos Fundazioak eta Giza Eskubideen Aldeko El Salvadorreko Elkarteak (ASDEHU), Herbehereetako enbaxadaren sostenguekin, lau kazetarien heriotza zela-eta salaketa bat tartekatu zuten.

Akusatuak ondorengoak ziren: Jose Guillermo Garcia De-

fentsa eta Segurtasun Publiko ko ministro ohia –bera karguan zegoen bitartean, 1978tik 1983ra, zibilien kontra Indar Armatuek egindako 41 sarraski dokumentatu dituzte–; Francisco Antonio Moran Ogasun Poliziaren zuzendari ohia; Mario Adalberto Reyes Mena, Infanteriaren IV. Brigadaren komandantea garai horretan; Rafael Flores Lima, Indar Armatuetako Estatu Nagusiko buruzagia –2020. urtean hil zen San Salvadorren. El Mozoteko (1981) eta El Calabozoko (1982) parte izan izana leporatzen diote–; eta jada hilik da goen Mario Canizales Espinoza, kazetariak hil zituen Atonal Batailoiko patruila zuzendu zuen Ameriketako Eskolan ikasi zuen sarjentuak.

2022ko urriaren 14an, epaileak Jose Guillermo Garcia, Francisco Antonio Moran eta Mario Adalberto Reyes Mena atxilotzeko agindua eman zuen. Azken hau Estatu Batuetan bizi zenez, estraditatzeko eskaera egin zuen. Iazko abuztuaren 22an, epaiketari bide emateko auzia osoko bilkurara eramatea erabaki zuen. «42 ur-



tez lau kazetarien hilketa inpunitatean egon da. Lehenengo aldiz goi mailako militarrek eta Defentsa ministroa izandakoa eseriko dira akusatuen eserlekuan. Biktimak erdigunean jarriko dira eta ez biktimarioak, lehen aldiz hori ere. Epailearen erabakia oso garrantzitsua eta historikoa da guretzat. Epaiketa honek, gainera, beste batzuk bultzatu ditzake. Fiskaltzak egia eta justizia eskatzen duten 200dik gora salaketa ditu esku artean», adierazi du Oscar Perezek, Comunicándonos Fundazioko presidente eta zuzendariak, GAUR8rekin telefonoz eginiko elkarrizketan.

Kazetarien kontrako segada «oso ondo pentsatuta eta antolatuta egon zen. Ekintza horrekin, egia isilarazi eta adierazpen nahiz prentsa askatasuna eragotzi nahi zuten. Agintarientzat Gobernuaren eta Indar Armaturen irudia «zikintzen» zuten eta Ameriketako Estatu Batuek El Salvadorri ematen zioten laguntza militarra arriskuan jarri zezaketen».

«El Salvadorreko Indar Armaturek estatubatuarrek Vietnamdik ekarritako lur suntsituaren

politika aplikatu zuten. Arrainari ura kentzea esaten zioten. Arraina gerrilla zen, eta ura, zibilak. Sarraskien, jazarpenen, bonbardaketen... garairik okerrera izan zen. Zibilak ihesean atera ziren, horietako asko Hondurasen babestu ziren kanpaleketan. Testuinguru horretan, kazetari holandarrek klase ertaineko familia bat elkarrizketatu nahi zuten San Salvadorren, non gerrarik ez zegoela eta den-dena oso ondo zegoela esaten zen, eta bestetik, gerra eremura joan nahi zuten biztanleriaren sufrikarioa jasotzera. Torturak, bonbardaketak, desagerpenak, hilketak... jasaten zituzten zibilak elkarrizketatu nahi zituzten. Eta bide batez, gerrillariekin mintzatu. Baina lanaren bigarren zati hori ezin izan zuten egin, zeren FMLNren kanpalekurako bidean hil zituzten. Nazioarteko korrespentsalen lana oso garrantzitsua izan zen garai horretan, zeren El Salvadorreko hedabideak Gobernuaren eta Indar Armaturen aldetik baldintzatuta zeuden. Nazioarteko kazetariei esker, munduak ezagutu ahal izan zuen bizi genuen

egoera lazgarria zein zen. Haiei esker, El Mozoteko sarraskiaren eta beste sarraski batzuen berri izan genuen. Garesti ordaindu zuten, ordea: 30etik gora kazetari salvadortar eta atzerritar hil zituzten gatazka garaian».

INPUNITATEA ETA MEMORIA

Esan bezala, 43 urte hauetan inpunitateari aurre egin behar izan diote auzia bizirik mantentzeko. «Borroka desorekatua izan da. Tarte honetan, Arena talde politiko eskuindarraren lau gobernu, FMLNren bi eta Nayib Bukeleren bat pasa dira. Hamarkada hauetan

inpunitate sare bat josi da eta oso zaila da gizateriaren kontra eta gerra krimenetan aurrerapausoak ematea. Ez dago justizia trantsizionalik. Biktimarioak beti erdigunean egon dira. Beti boterean edo boteretik gertu egon dira, edo boterean daudenen lagunak dira. Memoria ezabatzea nahi dute. Baina, laster edo beranduago, egia eta justizia gailendu egingo dira eta espero dut epaiketa hau inpunitatea apurtzeko lehen urrats bat izatea», nabarmendu du Perezek.

Holandako «lau tulipanen» memoria bizirik mantentzeko eta haien heriotza ahaztu ez dadin, kazetaritza ikasleei zuzenduriko bisita gidatuak egingen dituzte, esaterako, segada izan zen lekura, memoria historikoaren astea eta bestelako ekimenak antolatzen dituzte. Helburua, egiaren eta justiziarren bidetik, kazetariak «memoria historikoaren militante» bihurtzea da.

«Etengabeko inurri lan bat da, belaunaldi berriek batzuek borratu nahi dituzten orrialde horiek irakur ditzaitez», plazaratu du.

Goian, Koos Jacobus Andries Koster, Jan Corenius Kuiper Joop, Johannes Joop Willemsen eta Hans Lodewijk ter Laag kazetarien omenez ipinitako arrosa zuriak. Behean, Jose Guillermo García Defentsa ministroa eta akusatuatariko bat. FUNDACIÓN COMUNICÁNDONO Camilo FREEDMAN / EUROPA PRESS





Gazako Zerrendako 15 hila-bete baino gehiagoko gatazkaren ondoren, Israelen erasoaldia ez litzateke posible izango nazioarteko finantzaketarik gabe. Mundu osoko bankuek milioi askoko inbertsioak egin dituzte azken urteetan Israeli armamentu-materiala saldu dioten enpresetan, baita 2023ko urriaren 7tik aurrera ere.

Horren inguruan, Centre Delàs d'Estudis per la Pau erakundeak *“La Banca Armada y su corresponsabilidad en el genocidio en Gaza”* (“Banku Armata eta haren erantzukidetasuna Gazako genozidioan”) txostena egin du, «palestinaren aurkako sarrasketan erabilitako armak egiten dituzten enpresen finantzaketari» buruzkoa. Eduardo Aragon, Centre Delàs-eko ikertzailea eta

ISRAELEN ARMEN ATZEAN

«Lau armatik hiru ezingo lirateke ekoitzi bankuen inbertsiorik gabe»

📁 **GAZAKO ERASOALDIA** / Marcel PENA ZANUY

Centre Delàs erakundearen txosten batek salatu du Santander, BBVA edo CaixaBank bezalako bankuek Israeli armak saltzen dizkioten enpresak finantzatzen dituztela, Gazako erasoaldian lagunduz. Horren aurrean, banka etikoaren alde agertu dira alternatiba bezala.

txostenaren egileetako bat, Bilboko Zirika! herri gunean izan zen joan den astean, ikerketaren xehetasunak azaltzeko, BDZ Bizkaia, KEM-MOC Bilbo, Setem Hego Haizea eta Mundubat kolektiboek gonbidatuta. GAUR8k Campaña Banca Armadako aktibistarekin eta ikertzailearekin hitz

egin ahal izan zuen armen finantzaketari buruz.

Azterlanean, akzio-partaidetzatik, bonuen harpidetzatik eta kreditu eta maileguen emakidatik datorren finantzaketa aztertu dute egileek. Txostenak bankuen eta armaren enpresen negozioan jartzen du arreta, Israeliek Gazan egin-

dako erasoaldiarekin aberasten ari baitira. Horretarako, estatu desberdinek Israelera azken urteotan egindako arma-esportazioen, armak ekoizten dituzten enpresen eta horiek finantzatzen dituzten bankuen arteko loturak dokumentatu dituzte. Horiei «Banku Armatu» deitzen diete. «Kontua ez da banku bat armamentuaren ekoizpenean zuzenean inplikaturik egotea. Finantza-sistemak ez du horrela funtzionatzen, baizik eta armak ekoizten dituzten enpresen akziodunetan parte hartzen duten finantza-erakundeak aurkitzen ditugu, ez bakarrik Gazako gatazkarako, baizik eta munduko edozein gatazka aktibotarako», zehaztu du Aragonek «Banka Armatuaren» negozio-ereduari buruz, eta lau tipologia bereizi ditu: kreditu-lerroak, mailegu korporatiboak, bonuen harpidetza eta akzioen erosketak.

Stockholmeko Bakerako Azterlanen Nazioarteko Institutuaren (SIPRI, ingelesezko sigletan) eta NBE bezalako nazioarteko erakundeen datuetan oinarrituta, Centre Delàs-eko ikertzaileek Israeli armak eman dizkioten 15 armamentu-enpresa identifikatu dituzte, eta 2011 eta 2024 bitartean egindako 3.606 finantza-eragiketa aztertu dituzte; horietatik % 85 azken lau urteetan gertatu dira. Enpresa horiek finantzatu dituzten bankuen artean Banco Santander, BBVA eta CaixaBank daude, besteak beste, baina ez dute euskal banketxerik aurkitu.

Egoera horren aurrean, Aragonek azaldu du hori gertatzen dela herrialdeek «beren industria nazionalaren interesak lehenesten dituztelako, dela militarra, dela azpiegiturena

Soldadu israeldar batek jaurtigai bati eusten dio artilleria posizio batean, Israeliek Libanorekin duen iparraldeko mugatik gertu. Ayal MARGOLIN | EUROPA PRESS

edo mugikortasunarena, giza eskubideen ginetik». Gainera, azpimarratu du nazioarteko legediak debekatu egiten duela «genozidioa eragiten ari den estatu batentzat armak sortu dituen enpresa baten finantzaketa». Centre Delàsen ikerketaren arabera, BBVAk 1.300 milioirekin, Santanderrrek 1.200 milioirekin eta Caixabankek 110 milioirekin finantzatu dituzte Israelgo Armadak urriaren 9 eta 31ko Jabaliako sarrasketan erabilitako GBU motako bonba gidatuak (*Guided Bomb Unit*, ingelesez) esportatu dituzten enpresak, haien artean Boeing eta General Dynamics.

Baina nola desenkusutzen dira bankuak armamentu-enpresak finantzatzen dituztela jakiten denean? Aragonek azaldu du eragiketa horiek erabat legezkoak direla, kasu gehienetan enpresa oso dibertsifikatuak direlako, eta, beste zerbitzu batzuek gain, armak edo borrokarako ibilgailuen zatiak sortzen dituztelako. Hala ere, adierazi du nazioarteko finantzaketa funtsezkoa dela negozio militarren etorkizunerako: «Lau armatik hiru ezingo lirateke ekoitzi finantza-azpiegituren inbertsiorik gabe, funtsean sistema kapitalistan existitzen diren multinazional handi gehienen zorpetze-ratioagatik».

MUNDUKO ALIATUAK

Israelek arma industria propioa du, oso garatua, esportazio mailan paper garrantzitsua duena eta «borrokan frogatua» etiketarekin zabalzen dena. Izan ere, Aragonek gogorarazi duenez, «Israelek mota guztietako materiala ekoizten duten enpresen ekosistema bat du, eraso-subfusiletatik hasi eta kontrol sozialerako

Centre Delàs erakundearen txostenak bankuen eta arma-enpresen negozioan jartzen du arreta, Israelek Gazan egindako erasoaldiarekin aberasten ari baitira

«Kontua ez da banku bat armamentuaren ekoizpenean zuzenean inplikaturik egotea, baizik eta armak ekoizten dituzten enpresen akziodunetan parte hartzea»

tresnetara doana, aurrez hirigerrilletan tokian bertan erabilitakoak». Hala eta guztiz ere, ikertzaileak dio beste estatu batzuei erosten dizkien armen eta munizioen mende jarraitzen duela.

Eduardo Aragon Bilboko Zirika! herri gunera egindako bisitan, joan den urtarrilaren 17an.
Marisol RAMIREZ | FOKU

Guztien ginetik, Estatu Batuen eta Israelen arteko lankidetzaren estrategia eta militarra nabarmentzen da. Azken sei urteetan, Estatu Batuek urtero 3.800 milioi dolar transferitu dizkiote Israeli, eta 3.100 milioi aurreko hamar urteetan. Gainera, garapen eta ekoizpen militarreko programa bateratuak dituzte, urteko 500 milioi dolarreko kostuarekin. Estatu Batuetako lau arma-konpainia nagusiak, transferentzien bolumenaren garrantziaren arabera, Lockheed Martin, Boeing, General Dynamics eta RTX (lehen Raytheon) dira. Hala ere, kasu batzuetan, lotura filialen bidez,

gailu beraren aldaerak sortzen dituzten beste enpresa batzuen bidez edo Estatu Batuetako eta Israelgo enpresen arteko lankidetzaren bidez ezartzen da. «Kontua ez da soilik Estatu Batuek Israelera armak esportatzea, eskualdeko aliatu estrategikotzat ere badute Israel», dio Aragonek.

Era berean, Israelek armamentu-harreman komertzial garrantzitsuak ditu Europako beste herrialde batzuekin. Alemania da, halaber, Israelen arma-arloko laguntza nagusietako bat. Izan ere, urriaren 7aren ostean erreakzionatu zuen, 2022tik Israelera egindako arma-esportazioak hamar aldiz





biderkatuz, eta, oro har, Alemania da 2019tik 2023ra bitartean Israeli emandako laguntza militarren %30aren erantzulea, SIPRIren datuen arabera.

Italiak, Leonardo arma-konpainia nagusiaren bitartez, bi esportazio egin zituen azken urteetan. Italiatik Israelera egindako esportazioei buruzko azken informazioei dagokienez, Kanpo Arazoetako Ministerioaren gertuko iturriek maiatzaren 9an baieztatu zuten Italiak esportazio berrien

onarpena geldiaraziko zuela urriaren 7tik aurrera (azken eskaerak azaroan entregatu zuten). Aurretik, Defentsa ministroak esan zuen armak esportatzen jarraitzen zutela, baina urriaren 7a baino lehen sinatutako eskaerak betetzeko bakarrik, Gazan zibilen aurka ez zirela erabiliko egiaztatu ondoren. Ameriketako Estatu Batuek (%69), Alemaniak (%30) eta Italiak (%0,9) esportatzen dituzte Israelen inportatzen dituen ia arma guztiak.

LAB sindikatuak Bilboko portuan Israelekin egiten diren negozioen aurka egindako eserialdia, urtarrilaren 15ean. Jagoba MANTEROLA | FOKU

Eragiketa horiek erabat legezkoak dira, enpresa oso dibertsifikatuak direlako, eta, beste zerbitzu batzuek gain, armak edo borrokarako ibilgailuen zatiak sortzen dituztelako

Finantza etikoak dira «genozidioan» erantzukizunak dituen «Banku Armatuaren» alternatiba erreal bakarra, «arma-enpresetan edozein inbertsio errefusatzeko baitute»

pieza direla «ezagutzen duten genozidioa egiten segitu dezaten». Errealitate horren aurrean, adierazten dute finantza etikoak direla «genozidioan» erantzukizunak dituen «Banku Armatuaren» alternatiba erreal bakarra; izan ere, «armak ekoizten dituzten enpresetan edozein inbertsio errefusatzeko dute, eta gizadiarentzako etorkizuna eraikitzean oinarritutako finantza-eredu bat sustatzen dute, justizia sozialaren eta desberdintasuna murriztearen, berdintasun eraginkorren, kolektibo kalteberak ez baztertzeko eta giza eskubiak errespetatzeko alde egiten duena».

«Bankuek armak ekoizten dituzten enpresetan inbertitu eta finantzatzeko ideia erabat finkatuta dago. Harreman hori zalantzarik gabe onartzen da. Hala ere, banka etikoak benetako alternatiba da banku konbentzionalarekiko. Indarkeriarik eza eta bakearen kultura bultzatzeko eta konplexu militar industrialarekin eta logika militaristarekin amaitzeko aukera bat da. Azken hamarkadan banku etikoaren hazkunde esponentziala ikusi dugu, baina egia da oso zifra txikiezi ari ginela. Pixkanaka, finantza etikoen sektorea sendotzen ari da espainiar Estatuan, eta gero eta diru gehiago bideratzen da proiektu etikoetara. Are gehiago hazten jarraitzea espero dugu», baloratu du Aragonek banka etikoari buruz.

Aktibistak uste du jendearen ohiturak aldatzeak eta banka etikoa handitzeak lagundu ahal izango luketela armamentu-enpresa handien finantza-laguntza murrizten, horiek gabe «Israeli askoz gehiago kostatuko litzaiokete eta bere armak ekoiztea».

Espainiar Estatuaren eta Israelen arteko armen merkataritza dagokionez, Centre Delàs erakundeak egindako «*Business as usual*» txostenak erakusten du azken urteotan Pedro Sanchezen Gobernuak Israelera esportazioak egiteko baimena eman duela, hainbat kategoriatan banatuta. Azken bost urteetan, armak eta ibilgailu batzuk esportatu dira. DataComexen datuen arabera, espainiar Estatuak 2023ko urriaren 7az geroztik Israelera arma eta munizio gehien esportatu dituen Europako Batasuneko bosgarren herrialdea izan da, 1,1 milioi euroekin, beste herrialde batzuek kategoriatan horretako ezer esportatu ez duten bitartean.

BANKA ETIKOAREN BULTZADA

Ikerketaren egileek uste dute arma-enpresen finantzaketaren arduradunak funtsezko

Ula IRURETAGOIENA BUSTURIA - @ulissima5
Arkitektoa



Datorren iraultza

Europak agintzen du arkitekturaren egitekoaren norabidea. 2050 urtearen epemugan, eraikuntzaren oinarriak eraldatu nahi dira, Europar Akordio Berdean adostutakoa lortzeko bidean. Azken helburua “gizarte erresiliente” bat erdiestea da, eta sektore bakoitzak bere gida orria zehaztuko du, elkarrekin trantsizio-energetikorantz jotzeko. Eraikuntza alorrean deskarbonizazioaz dihardugu, eta eraikin berrietan eta eraikitako parkean eragin nahi da; energia eta uraren kudeaketa eraginkor bat burutu, eraikinaren baliabide horien beharra txikituz eta beharraren erdiestea eraikinak berak hornitzeko. Eraikina kontsumo zeroko zirkuitu bat izan dadila, alegia.

Aldaketarako diru mordoa inbestitu nahi da, eta akzio-estrategiak nagusiki bi dira: eraikuntza berrietarako zertifikazioak exijitu (lobby handi bat dago dagoeneko zertifikazioak lortzeko sistema eta neurgailuetan, zertifikatzen denaren jarraipenerako) eta dauzka-gun eraikuntzen berrikuntzarako pizgarri ekonomikoak eman. Eta bien bitartean, informazio eta formakuntza iturriak zabaltzen ari dira, lortu nahi diren emaitzak zein modutan egin behar diren azaltzeko. Erronka handia da 25 urtetan iraultzea burutzeko. Adi, gas instalaziorik gabeko etxeak hobetsiko dira bakarrik, eta gaur egun etxeen %70 inguruk gasa darabil.

Berritasun handikoa da ekonomia zirkularraren txertaketa, eta, beraz, Eraikinaren Bizitza Zikloarekin lan egitea. Arkitekturaren sistema, material edota xehetasun bat erabakitzeko unean, eraikina osatzen duten elementuen berritze aukerak esan nahi du produzitzeko erabili den ur kantitatea, bere ekoizpenean ustiatutako baliabideen iturria eta sortzen duen honda-

kin kopurua kuantifikatzea eta neuritzea. Horretarako software espezifikoak daude eta informazio kantitate erraldoia mugitu behar da material unitate bakoitzetik, beharrezko datuek programa informatikoa elikatzeko (eta datuak egiazkoak diren zertifikatzeko fiskalizazio enpresak sortu). Honek ez du esan nahiko material kutsakorrik erabiliko ez denik, baizik eta balantzean nota egoki bat ematen duen erabaki-sorta bat egingo dela parametro horien arabera.

Eraikinaren Bizitza Zikloan material/energia xahutze handia egiten da, batez ere baliabideen ustiatetan eta erabilera faseetan. Erabilerako bizitzan, instalazio, ekipazio eta barne banaketaren berriketetan burutzen

den birziklapen eta ordezkatzeko lanak oso urriak dira, eta ohitura hau penalizatzen egin nahi da.

Interesgarria, baina teorikoa ez ote da? Zailtasun handia ikusten diot, arkitekturaren erabakiaren unean, datozen 50/75 urtetan gerta daitezkeen egoera materialen aurreikuspen konpleto bat egiteari eta ziurtatzeari gaur egungo material eta elementuen osaketetan dauden piezen ordezkari industria egongo dela. Gainera, ez dakit Alemaniako eraikuntza sektoreko artisaugintza nola dagoen, baina gurean hiltzen ari den ofizioa da. Ustedut, zertifikazioaren bide administrati-boaz gain, eskuekin adabatu daitezkeen berregite-jakintza sustatzea funtsezkoa dela. Sistemak hondoratutakoak salbatuko du sistema akaso. •



Ilustrazioa: ULA IRURETAGOIENA BUSTURIA

arkitektura / psikologia / teknologia

3 BEGIRADA:

SOINUAREN LIBURUTEGIA

Romualda Zuloaga, panderoari berba eginarazten zion galdakoztarra

Galdakaoko Arteta auzoan jaio zen Romualda Zuloaga, 1913ko otsailaren 7an. Bere garaiko pandero-jotzaile puntakoa izan zen. Plaza publikoa gizonetzkoen jabetzakoa zenean, bere tokia hartu zuen bertan. Bere helburu nagusia –inon inoren tokirik aldarrikatzea baino– ondo pasatzea zen; festa maite zuen, panderoa hizketan jartzeko gaitasuna zuen eta plazan lehen lerroa hartu zuen. «Ni ondo pasatzera etorri naiz», erantzuten omen zien punta zorrotzeko galderei. Garai hartan nahiko berritzailea ere bazen emakume batek ondo pa-

HISTORIA / Amagoia MUJIKÁ TELLERÍA

Romualda Zuloaga (1913-1971, Galdakao) lehen lerroko pandero-jotzailea izan zen, plazan gizonetzkoa nagusi zenean bere lekua egin zuena. Plazak dantza batean jartzuten panderoa astinduz, talentua zuelako eta festa maite zuelako. Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak biografia josi dio, merezi duen lehen lerroa ekartzeko.

satzea bere lehentasunen artean jartzea. Eta Romualdaz egunotaraino iristen diren ahotsek horixe nabarmentzen dute: bere alaitasuna, festarako gogoia, nekaezinaren poza.

Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak Soinuaren Liburutegia bildumako 17. alea Galdakaoko

artistari eskaini dio. Gontzal Carrasco trikitilari eta historialariak ondu du “Romualda Zuloaga, panderoaren bidaia hilezkorra” biografia. Hortaz, lehen lerroa ekarri du lehen lerrokoa izan zen artista, euskara eta euskal kultura bihotzean tatuatuta zituena.

Ezkerretara, Romualda Zuloaga panderoarekin. Eskuin aldean, bere alaba Belen Ojanguren panderoa joz. Haien etxean ez omen zen inoiz festarik falta.
OJANGUREN ZULOAGA SENDIA

BERE KASA IKASI ZUEN

Arteta auzoko Txapelgorri baserrian sortu zen Zuloaga, erromeria ikusgarriak antolatzen ziren inguruan. Akaso umetako auzo horretan piztu zitzaion pandorako eta festarako grina. Carrascok ondorioztatu duenez, segur aski autodidakta izan zen. «Ez dakigu oso seguru nola ikasi zuen. Bere garaiko pandero-jotzaileek etxean ikasten zuten normalean. Batzuek suertea zuten eta bazuten irakasleren bat inguruan, etxekoren bat edo lagun bat, baina normalean autodidaktak izaten ziren. Erromerietara joan, ikusi pandero-jotzaileak nola jotzen zuten, etxera bueltatu eta plater batekin edo parean harapatzen zutenarekin saiatu ikasten. Forma borobila zeukan edozerekin. Horrela ikasi ohi zuten».

Jose Ojangurenekin ezkondu zen, Galdakaoko Bekeako ermita inguruko Dorrearen Punta izeneko baserrikoarekin. «Jose umezurtza izan zen: aita hil zitzaion ama haurdun zegoela, eta bera jaio zeneko erditzean hil zitzaion ama. Romualdaren beraren auzokoak ziren izekoak eta osabak hazi zuten Artetan bertan. Umezaroa batera olgetan igaro ostean, ezkondu egin ziren», jaso du Carrascok bere liburuan.

Behin ezkondata, Bekeara lekualdatu ziren eta bertan egin zuten bizitza. Biak ziren pandero-jotzaileak eta biek maite zuten festa, nahiz eta beren bizitza beti ez izan samurra. Lau seme-alaba izan zituzten: Lourdes, Rosario, Jose Miguel eta Maria Belen.

Rosario alaba 1936ko gerra krudelak hil zuen, sei hilabetezko zituela. «Hegazkin ankerak zerua zeharkatzen ikusten zituenean, Bekeako etxe albo-



ko tunel batean babestu ohi zen Romualda bonbek jo ez zezaten. Gerra bereziki latza izan zen Romualdarentzat: alaba hil ostean, hiru egun behar izan zituen lurperatu ahal izateko».

Gerrak latz kolpatu zuen Zuloagaren eta Ojangurenen familia eta gerraostea ere ez zen samurretik joan Etxebarri baserrian. «Ekonomikoki ez zen oso familia boteretsua. Baserritarrak ziren, ortuak ematen zuenetik bizi ziren eta apopiloak hartzen zituzten etxean diru pixka bat ateratzeko. Ahal zuten moduan ateratzen zuten bizimodua aurrera».

Frankismoaren lehen urte haietan, Estatu espainoletik langileak ari ziren iristen Euskal Herrira, geroago gertatu zen industrializazioaren lehen urrats modura. Galdakao ere baserri inguru bat izatetik hirigune izatera pasatzeko prozesuan hasia zen, 30.000 biztanlera iristeko geroago. Romualda Zuloaga horren guztiaren lekuko izan zen, bere etxean hartu zituen apopiloen hizkuntza eta kultura ohituretan bertan.

Gontzal Carrascok bere biografian kontatzen duenez, Etxebarri baserrian senar-emazteak, hiru seme-alabak eta apopilo hartutako hiru langile bizi ziren garaian, Romualda goizaldeko bostetan joaten zen auzoko garbitokira etxeko guztien arropak garbitzera. Auzoko emakume batek –Francoren aldeko familia batekoa– kargu hartu zion, bera garbitokira joaten zenerako ura zikin topatzen zuelako, «etxean dekozuzan makakoen zikinkeriaz beteta». Eta Zuloagaren erantzuna, «Zer esaten zabiz, Juana? Zuk Franco asko gure dozu, ezta? Ba Franco baino makako handiagorik ez dau. Nire etxeko behargi-

nak Francoren, zure eta nire antzekoak dira».


Era horretako kontakizunek erakusten dute Romualda Zuloaga berritsua eta etorri handikoa zela. «Edozein egoeratan irtenbidea aurkitzen zuen. Artista hutsa zen, aurkitzen zuen edozeri buelta emateko gauza zen».

Bere izateko moduak lagunduko zion plazan lasai paratzen, gehienetan gizonen artean emakume bakarra izan arren.

EUSKAL KULTURAREN ENTZIKLOPEDIA

Umetatik baserrian jaso zituen euskara eta euskal kultura, eta bizitza osoan saiatu zen horiek zaintzen. «Romualda baserritarra zen eta etxean jaso zituen euskara eta euskal kultura. Kultura horrekiko maitasunak eta begikotasunak eragina izan zuen bere izaeran eta ibilbidean. Oso ondo ezagutzen zuen kultura hori», kontatu du Carrascok. Bere etxean euskal dantzak irakasten zituen, eta Galdakaoko Andra Mari dantza taldea eratu zenean, berak josi zituen jantziak. «Euskal folkloreaken inguruko entziklopedia bat izan zen, adar guztiak kontrolatzen zituelako; trikitixa, euskal dantzak, jantziak, euskara, abestiak...», nabarmendu du historialariak.

Euskararen eta kulturaren ezagutzaile, maitale eta zaindari izan zen Romualda Zuloaga. Baina ingurua erabat liluratzen zuen panderoa asintzen zuenean. Gontzal Carrascok bere biografia liburuan kontatzen duenez, «inguruko begirasun guztiak bereganatzen zituen bere kasa ikasitako Romualdak. Berba eginarazten zion panderoari. Atzamar guztiekin jotzen zuen. Lortzen zuen soinua bestelakoa zen. Joten eta porruen estrofa bakoitzean aldatketak sartzen zituen, eta ez zi-



Irudian, Gontzal Carrasco, historialaria eta trikitilariak. Berak ondu du Zuloagaren biografia.

Oskar MATXIN EDESA | FOKU

tuen abesti berean zati bi berdin jotzen. Bazuen sena nortasunez parte bakoitzean ukitu ezberdina sartzeko. Piezaren melodiaren arabera gauzatzen zuen Romualdak erritmoa era batean edo bestean. Buruz ikasitako letrei ere berak asmatu zatiak gehitzen zizkien». Panderoari inork espero gabeko birak ematen omen zizkion Zuloagak, eta bere saltzo eta irrintzi sutsuak ere sonatuak ziren. Bere senar Jose Ojangurenak ere panderoa jotzen zuen, baina ez Zuloagaren mailan.

«Teknikoki oso ona zen Romualda. Agian gaurko pandero-jotzaileekin konparatuz gero ez hainbeste, baina kontuan izan behar dugu sasoiaren ez zirela hainbeste trikitilari eta pandero-jotzaile ikusten eta maila desberdina zela. Testuingurua ere beste bat zen. 70eko hamarkadara arte trikitia herri kulturaren babestu zen eta ez zuen beste inon garatzeko aukerarik izan. Testuinguru horretan, Romualda Zuloaga

oso pandero-jotzaile ona izan zen. Trebea zen eta oso ondo jotzen zuen. Senarrarekin ere jotzen zuen, Jose Ojangurenekin, eta nabaritzen da Romualda abilagoa zela. Bada argazki bat biak elkarrekin panderoa jotzen ageri direna. Jose begira-begira dauka Romualdak, miresmenez. Haien alaba Beleni aipatu nion 'maiteminez' begiratzen ziola aitak amari argazki horretan. Eta Belenek esan zidan ezetz, Jose Romualdari begira dagoela haren erritmoari jarraitzeko. 'Hain trebea zen panderoarekin, ez zen erraza berari jarraitzea', kontatu du Carrascok.

Jose Ojanguren pertsona garrantzitsua izan zen Romualda Zuloagaren bizitzan. Garaiko jendartearen gizonak hartu ohi zituzten roletatik apartatu zen eta horri esker pandero-jotzaile lasai ibili zen gustatzen zitzaiena egiten. «Gaur egun bortitza gertatzen da esatea senarra 'malguagoa' zenez Romualdak gustatzen zitzaiena egin ahal izan zuela. Gaur egu-



netik begiratuta, gogorra egiten da hori esatea. Belenek, haien alabak, asko nabarmen-tzen du hori. Tristea da hori onartzea, baina egia da sasoi-an, generoaren araberako rolen banaketan, badirudiela Josek gizonari inposatzen zitzaizen rol horretatik alde egiten zuela. Emaztea panderoa jotzera joaten zen munduan barna beste gizonetzko batekin, eta berak animatu eta bultzatu egiten zuen, eta bera etxean geratzen zen seme-alabekin. Jose Romualdaz harro zegoen. Berak ere panderoa jotzen zuen eta konturatzen zen Romualdak berak baino hobeto jotzen zuela. Gainera, Romualdak saltzoak egiten zituen eta koplak kantatzen zituen. Jose jakitun zen Romualda artista puska bat zela, abila zela. Bere garairako gizon modernoa izan zen, eta baita Romualda ere», uste du Carrascok.

«Inguratzen zituzten trikitilari guztiak gizonak ziren arren, ez pentsa Romualda batiere kikiltzen zenik. Berak ez zuen panderoa jotzea balentriarekin lotzen, plazara lotsa-

rik gabe ateratzeak ez zuen auserik bilakatzen. Askotan Jose eta umeak etxean utzita irte-tzen zen kalera berak gura zue-na egitera. Ganorabakotzat izango zuten askok, baina Romualda argia zen, eta jakingo zuen helduko zitzaizkion iruzkinei hanka egiten. Berak panderoari ekin eta koplak botatzea besterik ez zuen gura». jasotzen da biografian.

ALBOKARIAK ETA TRIKITILARIAK

Albokariarekin eta trikitilariarekin aritu zen bikote Zuloaga. Mariano Barrenetxea albokariarekin plaza dezente egin zituen, gertukoak ziren. Barrenetxe-ari esker iritsi dira egunotaraino

Panderoari inork espero gabeko birak ematen omen zizkion Zuloagak, eta bere saltzo eta irrintzi sutsuak ere sonatuak ziren. Panderoa hizketan jartzen zuela esaten zen

**«Erromeriak, panderoa, trikitia.... gustatzen zitzaizkion. Arraroa zen emakume bakar-
izatea hainbeste gizonen artean, baina denaren gaineratik ondo pasatzea gustatzen zitzaion»**

Jose Ojanguren eta Romualda Zuloaga senar-emazteak panderoa jotzen, Galdakaoko Euskal Jaietan. OJANGUREN ZULOAGA SENDIA

albokaren inguruko zehaztapen historiko eta morfologikoak. Horrez gain, Romualda Zuloagari buruzko kontuak ere jaso zituen Barrenetxeak, Gontzal Carrascok berak liburuan nabarmendu duenez. «Bere le-
rroetan Romualdaren inguruko pista ugari utzi zizkigun albokariak, pandero-jotzailea baino hamarkada batzuk beranduago hil zenak. Informazio-iturri oparoa da guretzat Mariano, berari esker ezagutzen ditugu Romualdaren kontu ugari. Oso begiko zuen pandero-jotzailea albokariak».

Antonio Aiesta, Silvestre Elezkano "Txilibrin" eta Martzel Arrieta "Borlas" bidelagun izan zituen askotan.

1960ko hamarkadan, herritik hirira egin zuen salto Zuloagak, urte pare bat eman baitzituen Ballet Ollaeta eta Dindirri dantza taldearekin pandero-jotzaile. Carrascok liburuan kontatzen duenez, «Jose Luis Bengoa Zubizarreta kazetariak fitxatu zuen Romualda Olaetarako. Liluratu egiten zuen Bekeakoaren indarrak, idatzi zizkion hamai-
ka albistetan adierazi bezala. Miretsi egiten zuen». Zubizarreta irratan ere aritzen zen kazetari, eta askotan aipatzen omen zuen Romualda. Bere heriotzaren berria irratan emateaz Zubizarreta bera arduratu zen.

Galdakaotik Bilbora egin zuen salto, ermita eta mendialdeko erromeriatatik antzoki eleganteera pasatu zen Olaeta eta Dindirri bezalako konpainia sonatuekin. Panderoa inguru horietara pasioz eraman zuen, baina ez zen inoiz apartatu Galdakaoko Andra Mari Dantza Taldetik. 1955ean sortu zen eta beti topatu zuen magala bertan Zuloagak. Pare bat urtetan Bilboko konpainia horiekin aritu ondoren, berriz bueltatu zen Andra Mari ingurura. Eta imaji-

na ezineko tokietaraino iritsi zen bere panderoarekin Andra Mariaren eskutik, Gales eta Inga laterrara kasu.

Mariano Barrenetxea eta Romualda Zuloagak Europako hainbat herrialde-tara bidaiatu zuten Andra Mariko dantzariarekin batera, eta Galesko Llangollen jaialdian sarituak izan ziren.

«Galesen egon zen behin se-guru eta agian bitan. Sari batzuk eskuratu zituzten Maria-nok eta berak. Harrigarria da, 1965. urtea zen, Franko hiltze-ko hamar urte geratzen ziren oraindik, eta emakume batek irabazi zuen saria, panderoa jotzen eta euskaraz abesten, seme-alabak eta senarra Gal-dakaon zeudela. Euskal jendarteak jakin beharko genu-keen zerbait da zalantzarik gabe. Baina, tamalez, Romualda nahiko ezezaguna da», bota du hausnarketa Carrascok.

1964an lehen edizioan eta 1967an bigarrenean, Romualdak eta Mariano Barrenetxeak "Alboka: bailables vascos" disko-koa argitaratu zuten; bat albo-kari eta bestea kantari eta pan-
dero-jotzaile.

EZ ZITZAION PILA AMAITZEN

«Romualda oso pertsona alaia zen eta asko gustatzen zitzaion jaia eta ondo pasatzea», nabarmen-tzen du behin eta berriz Gontzal Carrascok. Bere biografiaren izenburura «panderoaren bidaia hilezkorra» ideia ekarri du horregatik, Zuloagaren izaera hori goratzeko. «Euskal folkloarearekin lotuta-ko jaiak, erromeriak, panderoa, trikitia.... asko gustatzen zitzaizkion. Arraroa zen emakume bakar-
ra izatea hainbeste gizonen artean, baina denaren gaineratik ondo pasatzea gusta-tzen zitzaion berari. Ondo pa-satzeko grina zen bere izaera-

ren oinarria. Ematen zuen pila ez zitziola inoiz agortzen, ez berari ezta bere ingurukoei ere. Galesera joan ziren behin baino gehiagotan. Atzerritarren aurrean jotzen aritzen ziren, haiek seko txundituta utziz. Eta kontatzen dute euskaldunek ez zutela inoiz amaitzen jotzen; jo, jo eta jo. Azkenerrako parean zituztenak etxera joaten ziren lotara, euskaldunei –tartearen Romualdari– ez zitzielako pila amaitzen. Nekaezinak ziren», esan du Carrascok.

Etxekoek ere halaxe gogortzen dute, alai eta festarako prest. Bere alaba Belen Ojanguerenek kontatzen duenez, «gaitzak jota zegoenean, panderoari ekiteko eta kantatzeko ohetik altxatzen zenean, sinesgaitza zirudien izaten zuen eraldaketa. Goitika ibiltzetik ingurukoak goititzera igarotzen zen amen batean. Romualdaren ikusleek pandero-jotzailea osasunez makal ote zegoen egiten zuten duda izaten zuen orduan alabak gogoan, bera besterik ez baitzen egoten amaren gaixotasunaren jakinaren gainean. 'Jakingo ote dute lehentxoago ohean etzanda eta gonbitoka ibili dela?'».

1971n pausatu zen Romualda Zuloaga, gazte. Garaian sonatua izan zen arren, urte askoan itzalean egon da bere bizitzaren istorioa. Baina azken urteotan saiakera berezia egiten ari dira Galdakaoko Udaletik eta herritik Romualda Zuloagari bere tokia emateko. Bide horretan, 2017ko martxoaren 8an inauguratu zuten Urreta auzoko Romualda Zuloaga Artetxe plaza. Eta murala ere egin diote bere herrian pandero-jotzaile talentudunari. Zuloagaren aitortza egiteko bidean, Gonzal Carrascoren biografia beste gailur bat izan da.

2017an Romualdaren omenez murala egin zuen Galdakaon, bere herrian.
GAUR8

Egileak aitortu duenez, informazioa biltzea ez da erraza izan; besteei buruzko informazioaren barruan begira egon behar izan du, bigarren lerroari begira. «Hori da liburu guztiaren tesia, era batean. Ema-

kumea izateagatik, 60ko hamarkadan ibili zelako, ez dago informazio asko Romualdaren inguruan. Gizona balitz informazio gehiago izango zen. Romualdaren kasuan, bi iturri mota erabili ditut; dokumen-

talak eta ahozkoak. Dokumentalak informazio osagarria baino ez dira izan, apenas dagoelako bere inguruko informazio gehiago. Eta ahozkoetan elkarriketak izan dira liburuaren funtsa, alabarenak eta bilobarenak». Belen Ojangueren eta Desi Sanchez ama-alabak izan dira, beraz, informazio iturri preziatu hori.

Romualda Zuloagaren bizitzaren berri jasotzean, beste gogoeta bat pizten da bidean: Maurizia Aldeiturriagaz gain, izan ziren emakume panderojotzaile gehiago –Mauriziak eta Romualdak elkarrekin jo izan zuten–. «Maurizia Aldeiturriagaren inguruan informazio gehiago daukagu. Eta bada zapalkuntza patriarkalaren adibide bat. Emakume bat eta bakarra da, mitifikatu egin duguna. Eta eredu bihurtu dugu. Maurizia bat izan da beste askoren artean. Batzuetan ematen du emakume bat goratzean beste guztiak ordezkatuak daudela horrekin, ñabarduraren beharrik gabe bezala. Maurizia bakarra da eta berekin betetzen ditugu emakume guztiak, ordezkatu egiten ditugu. Bakoitzak bere historia dauka eta beste emakumeei ere ahots propioa ematea beharrezkoa da», iritzi dio Carrascok.

«Plazan ibiltzen ziren emakumeak normalean gero etxera joaten ziren zaintza lanetara edo beste gauzetara, gizonen plazan eta tabernan jarraitzen zuten bitartean. Emakume izatea traba izan da bere inguruko informazioa lortu ahal izateko, baina hori ezin da izan aitzakia emakumeek itzalpean segitu dezaten. Historialarion lana ere bada historiografia feminista eraikitze ahalegina egitea», amaitu du ikertzaileak.






Amaia
BALLESTEROS

IRRITZIA:

LUR AZPIKO ABENTURAK





Josu OZAITA Antropologoa

Itsasoaren ardora begietan

Itsasoan zoazela, ura beltz-beltz ikusten da, eta halako batean, dirdira. Arrainak, martxan, buztanarekin ateratzen duen argiari, horri deitzen zaio ardora. Justo Silbeti (1935) Getariako arrantzalea eta Aitor Arregi (1971) Elkano jatetxeko patroia daude tertulian mahaiaren bueltan, begietan itsasoaren ardora dutela. Sukaldariak izugarri gozatzen du adineko arrantzalea entzuten, bizirik dagoen liburu bat hitz egiten

{ gastronomiaren antropologia }

ariko balitzaio bezala. Justok, berriz, sukaldariak itsasoan harrapatutako gertuko arrainak pentsaezin diren moduetan erre edo prestatzen dituelarik, omenaldia sentitzen du mokadu bakoitzeko. Eta halako egoeratan, isilik egon eta zapo arrain aurpegia jartzea da antropologoaren erabakirik onena, landa lanak izaten dituen momentu berezi horietako bat gozatzea.

«Arratsalde on», agurtu du Aitorrek Justo, goiza bada ere. Badaki arrantzale jubilatua izanagatik, albarako jaikitzen dela. Gaur, 5.45ean martxan zen: bizarra moztu, dutxatu, kafea hartu, GARA egunkaria erosi eta irakurri, baratzean aritu... «Ni ez nauk ona, gaiztoa ere ez: Justo nauk», aurkeztu dit bere burua kostako umorez. Sarrera honekin, elkarriketak asko emango didala sentitu dut. «Antxoa dagoenean, sarea bota, Josu!», esan ohi dit Aitorrek.

ITSASOKUMEA ITSAS HERRIAN

Sei urterekin itsasoan sartu eta txibitara joan zen lehen aldiz: «Orduan mareatu egin nintzen, orduz geroztik ez». 1946ko urtarrilaren 22an hasi zen lanean itsasoan Silbeti, 11 urte zituela: txalupa mu-

tila izatea gizon izatea zen, ia. Galtza luzeak, txapela, bota handiak eta labana patrikan: petxua bost zentimetro puztuta, oroitzen da lagunengana harro-harro eginda azaldu zela, «nirekin *ojo al kristo!*» irribarre batekin, atzo izan balitz bezala. Orduz geroztik ia beti eraman du labana patrikan, erreminta moduan: korapiloak askatzeko, sokak mozteko, jateko... gorputzeko beste parte bat izan da labana arrantzalearentzat.

–Lehen egunean bisiguetara atera eta 17 arroa harrapatu genituen: 170 kilo. Frakzioa zen, baina arroa deitzen genion – esan du Justok.

- Gogoratzen al zara, ba?
- Joe, begien bistan.

Umea izanagatik, txalupa mutilak lan asko egiten zuen. Patroia txalupa mutilarengana joaten zen gauean, deika: «Justoooo...!!!». «Bai» esan arte ez zen errenditzen. Gero, txalupa mutilaren lana zen marinela esnatzea herrian zehar. Farolik gabe, izarren argipean. Ixkotera joateko goizeko 2.00etan, Gaztelu edo Lakraiztara 3.30ean, eta barruko kalara, 5.00etan. Moilan elkartu, eta barkura eramaten zituen txalupan, baita aparejuak ere.



Aitor Arregi, Elkano jatetxeko patroia eta Justo Silbeti, Getariako arrantzalea, elkarrekin hizketan gustura, jakintza partekatzen. Josu OZAITA



Justo Silbeti 1961. urtean, bisigutan erabiltzen ziren tretza txapelketan. Justo SILBETIREN FUNTSA

Igandero, sarea zabaltzen zuen txalupa mutilak Getariako balearen magalean. Eta hilean behin, kotoizko sarea tindatu egin behar.

– Hori ez dut inoiz entzun, Justo – deskubritu du Aitorrek.

– Kotoizko sarea, itsasoan zebilela, zuritu egiten zen. Eta tinta-lekuan tindatzen zen. Tinta, harri modukoa, irakiten jarri eta urtu egiten zen. Sarea handik aldameneko harraskara mugitzen zen, eta oster, sikatzera.

Morroi txiki bat zen txalupa mutila: enkarguak egiten zituena, lan txiki askoren ardura zuena... Mutikoak erdia kobratzen zuen, nahiz eta lan asko egin. Otorduko orduan ardo zahatua bueltan hasten zenean, «hik bigarren bueltan!», esaten zioten; txalupa mutilak bitik trago bat. Hala ere, malezia pixka bat lagun, zahatua betetzera behera bidaltzen zutenean, berak han sartzen zuen pasa-txanda egindako ardo tragoa.

Ardoa 11 urterekin, eta urtebetera puru okerra ahoan. Gurasoek bazekiten erretzen zuela eta herriko jaietan purua jarri zioten bazkalostean. Aitak esan zion, «bazekiat erretzen duala, erre ezak», amaren begiradapean. 14 urterekin, «akeita, txola eta txokorra», (kafea, kopa edari batekin betea eta purua). Gogoan du irudia: aita- semeak berrikerian eta purua errez. Aita marea-tu, ordea, eta siestara joan zen. Justok gustura erre zuen aitaren purua, orain-

dik satisfazioaren ke zapore hura ahoan balu bezala gogoratzen du.

ITSASOA LANTOKI

Errespetu hura lortzeko lan asko egin zuen. Balenciaga, Mater Dolorosa, Amadoloretakoa, Kukuarri eta Haizetsu itsasontzietan aritu zen. Lehen, begi, belarri eta buruarekin arrantzatzen zuten. Gaur egungo teknologiarik ez zen garaian, jakintza, transmisioa eta interpretazioa ziren tresna. Txoria ikusten bazuten, han izango ziren arrainak, eta norabide hura hartzen zuten, edota balea ikustean, bazekiten atunak izango zirela. Belarriarekin ere arrantzatzen zuten: *txartaa*. Ez da ikusten iluntzean, baina soinua sumatzen da: «Sardina ta-ta-ta-ta... eta belarriak gidatu behar zaitu, norabidea sentitu eta sarea bota». Barkuak txanalak zituen, pertsona bateko txalupa txikiak, eta hangoek esaten zuten nora bota.

Bisigua, antxoa, zimarroia, hegaluzea... horrela antolatzen zuten urtea: «Santa Catalina noiz da, bisigutarako goiz da». Ba, hortik aurrera. Eguberri ostean, bisigua airatu egiten zen, hondotik gorantz joan, antxoa txikia jaten hasten zelako. «Bitsuran aritzen ginen orduan, bi ofizioetan: bisigua eta antxoa. Azalera botatzen genuen, eta *fallo* ematen zigunean, antxoatan segitzen genuen», oroitzen da. Ez zen dirua irabazteko garaia bisiguarena: arrainpartea banatu eta getariar gehienek bi-

sigua jaten zuten egunero. Dirua irabazteko baino, gosarik ez pasatzeko zen bisigu arrantza. Dirurik ez zuten izaten neguan, eta tabernetan zorretan apuntatzen zituzten, poituak hasten zirenean kitatzeko. Hala ere, oroitzen da Patricio Echeverria enpresariak ere 3400 langilerentzako gabonsarirako bisigua erosten zuela Getarian, eguberrietan. Urte batean, lehen bisigu egunean ez zuten ezer harrapatu, bigarren egunean ez... eta hirugarren egunean Zarauzko hondartzan, izugarri pila. Askotan estraperloan, hots, joan eta *blas*, sarea botata, harrapatuko zutenaren esperantzan. Itxasominez, azken bisiguaz oroitzen da: «1964. urtean harrapatu nian azkena». Jada ez da bisigurik Getarian.

Antxoarekin hasten zen saltsa. Antxoa asko harrapatzen zen, Zumaia, Zarautz eta Orioko bokan. Lau antxoa fabrika zeuden, eta herriko emakume eta haur asko aritzen zen haietan denboraldian. Alde zaharreen ere, etxeetako etxabeak antxoatarako bodegak ziren. Antxoekin batera, batzuetan arrain zakarra: antxoa artean beste zerbait harrapatzen zenean, horri esaten zitzaion zakarra, txitxarroari, adibidez. Txitxarro marikoia, kasa-txitxarroa, txitxarro beltza...

Sanprudentzioetan zimarroietan hasten ziren, eskuko aparejuekin, txitxarroa jarrita. 50 eta 100 kiloko piezak. Eta gero, atunetan: «Txibizale amorratua duk atuna. Irekitzen genuen, pota bazuen (txibia bezalakoa), behetik etorri den seinale». Eta hemen, antxoa eta sardina zuten barrenean. Hemen ez bazen, Azores aldera joaten ziren harrapatzera. Eta oroitzapen haiekin, egun gogorak ere etorri zaizkio burura: arrantzale bati nola atera zion amua begitik. Ezin izan zuten ezer gehiago egin begia salbatzeko.

HITZEKIN BATERA ARRAINAK GALDUZ

«Papalardoa, bere izena du japuta; katuarrainak, erdia hezurra. Tolla, marrazo kasta. Kiloko panekai deitzen genion abarka. Barbaina... Arrain asko galdu da hemen. Lehen itsasoko kosta aberatsagoa zen: harraldera joan eta legamuztua, farolekin joaten ginen harrapatzera, haitz gainean kandela jarri eta ateratzen zenean, txast! Zarauzko hondartzan gastaka asko harrapatzen zen. Mazopa, lantesa... salberak ere bai. Salberak eztena dauka bizkar gainean; eskorpioi arraina da. Orain botika-kutxa erabiltzen da, baina orduan ez. Zizta eginez gero, bere gibela hartu eta eztena sartutako lekuan jarri behar zen sendatzeko», laburbildu du di-da batean.

Bestelako bizimodu bat zen: egun batzuetan Askizu eta Mutrikuko baratzeetara joaten ziren arrantzaleak arto azalak, malutak biltzera. Maluta onenak egosi, eta lixibatan jartzen zituzten, kasamatxak egiteko, arrantzarako. Eta hainbeste hitz berrirekin, burua lehertu zidan Justok, itsasotik gertu eta urrun bizi naizela gogoraraziz. Hitzak galtzen ari dira, haiekin batera



Arrantzarako trasteek osatutako konposizio berezia. Josu OZAITA

bizimoduak eta jakintzak. «Aitorri esan nion erreboi-
loa ez zela, guk erromona esaten genuela, eta hurrengo
egunetik gaur arte erromona erabiltzen du», oroitu da.
Eta Aitorren etxean, bereziki zainduko da herriko hiz-
tegia: solairua da bogabantea, barbaina salmonetea...
eta esaera batekin lagunduko du ahoz, txokorroa zerbi-
tzatzen duenean, esaterako: «Txokorro hutsa baino
arinago al hago?», esaten zitzaion xeble zebilenari.

Getarian arrapalari antxirria deitzen diote. Antxirri
horretan almejak, ixkirak... eta harraldean 100 lapa
bildu eta haiek gordinik jaten zituen Justok, eta pe-
naz kontatzen du: «Dena galdu da. Zeinek galdu
du?», airean utziz galdera.

Malenkoniaz hitz egiten du batzuetan, garai onenak
beraiek bizi izan balituzte bezala. Herri arrantzalea zen
Getaria, plazara baino, moilara begira zegoena: «Alka-
teari ere esaten diot, lehen festa guztia moilan izaten
zen». Moilan arrantza egiten zuten, hain zen ur garbia
non hondoa ikusten baitzuten, eta pantxoak harrapa-
tzea egunerokotasunaren parte zen. Bere hitzetan, gar-
bitasunaren izenean, itsasora zerrikeria asko botatzen
da: lixiba eta likido desberdinak... dena itsasora.

Eta galduz doaz, hitzekin batera, toponimia, ilargia,
mareak, itsasoa... interpretatu edo sentitzeko mo-
duak. «Mila korapilo klase dakizkigu egiten, lehen as-
ko erabiltzen ziren eta. Orain bat ere ez da ikasten, za-
patilena justu-justu», bota du hordagoa. Amua,
garranga, pendela... eskuetan dudan honek oilo-ipur-

dia izena du. Duela bospasei urte, Magi
senegaldarra ikusi zuen moilan apare-
jua egiten. Begira, ahoa bete hortz: «Ez
dira herrian bost lagun egongo hori egi-
ten dakitenak», esan zion. «Handik eto-
rri diren gehienak ofizioa ikasita etorri
dira».

ITSASONTZIKO SUKALDETIK ELKANORA

Justok bere bizierak eta ikuspegiak kon-
partitu ditu, eta esker onez, bazkaltzera
gonbidatu gaitu Aitorrek bere etxera.

– Lantesa jango al duzu, Justo? Atrebi-
tuko al zara?

– Ez dut nahi lantesa, Aitor.

Animatu da, ordea, eta irribarrea atera
zaio. Gustura jan du, zerbait berria des-
kubritu izan balu bezala. Oraindik oroit-
zen du Aitorrek zimarro gordina das-
tatzeko eman zion eguna. Hemen,
bizirik bagaude, denoi lehertzen zaigu
burua tarteka.

– Orain amona Joxeparen arrain zopa,
arrain zuria oinarrian, tipula potxatua
eta zopakoa – ari da Aitor ilusioz-. Justo,
haitzeko arrainak gustuko al dituzu?
Barbaina arraro jartzen badut probatu-
ko duzu?

– Aitor, nik ez dut horrenbeste merezi.

– Gu desiratzen gaude zu entzuteko,
zuek duzuen memoriatik gu laguntzeko.

– Dakidana kontatzea ezin dut ukatu.

Itsasoko txoriak ere jan izan ditu,
arrantzale zela. Kaioa ez, baina bai txirri-
na edo kolupia. Tollaren gibela jarri
amuan eta harrapatzen zituzten: itsaso-
ko ehiza. Bazkaritan, behin baino gehia-
gotan errepikatu du «itsasoa earra da»
esaldia. Itsasoa izan du bere bizitza, eta
oraindik ere moilara goizero joaten da,
herri eta itsas giro hori arnastera. Itsa-
sontzian 11.30ean bazkaltzen zuten, eta
18.30ean afaldu: «Bazkaltzeko atuna pa-
tatekin, eta afaltzeko patata atunarekin»,
kresaldun umorea erabiltzen du. Sardina
kaxa, barrutik karearekin estalita, parril-
la zen. Bertan ikatza bota eta gainean
hegaluzea egiten zuten. Egunero pizten
zen parrilla itsasontzian, egur ikatza era-
biliz. Itsasontzitik etxera bueltan, tabe-
rna gehienek parrilla pizten zuten. Arran-
tzaleek beraien arrain parte egiten
zuten libre, ardo eta sagardo tragoak os-
tatuari ordainduz. «Guk balkoian ere pa-

rrilla genuen, atera kontuak!», esan du.
Getaria eta parrilla elkartzea atzoko
kontua ez dela gogoraraziz, arrainburua
eskuekin hartu eta zurrupatzeari ekiten
dion bitartean. Itsasoa tenedorerik ez
zuen ezagutu. Koilara, egurrezkoa.

– Tenedore onena eskua –irribarre ba-
tekin bota du-. Ni zurrupatzeari ez
nauk lotsatuko, nahiz eta gero errieta
entzun. Arraina jaten ikasi behar duk,
ahoa ondo mastekatu, hezurrik ez ge-
ratzeko.

– Zer eman dizu itsasoak, Justo? – gal-
detu diot.

– Itsasoa egin behar zaizu gustatu,
bestela alferrik da. Gustukoa ez bada,
edozein lanbide da gogorra. Ni orain be-
rriro jaioko banintz, berriro itsasora
joango nintzateke, hori seguru dakit.
Itsasoak eman dit jakintasuna, asko ika-
si dut bertan. Nik ezin dut esplikatzen zer
den itsasoa niretzat.

Egun pozgarria izan da berarentzat,
baita Aitor eta biontzat ere. Bihar, egu-
nero bezala, azken 79 urtetan egin duen
bezala, bere egunerokoan deskribatuko
du eguna. 28.835 egunetako kronika du
idatzita, eta agian, horrek mantentzen
du hain bizi.

– Hor liburu bat zegok, Aitor – esan diot.

– Liburu bat ez, hor zegok bizitza bat –
balioa eman dio.

Justok, ordea, abesti batekin eman
nahi izan dio amaiera egunari:

*En época de invierno, Getari honetan,
Se ve poca gente, gauaz tabernetan,
Es que no hay dinero, gure patriketan,
A la madre pidiendo, beti errietan.
Somos afiladores, kutxiloarekin.
Vamoz al Artzape, patrika hutsakin.
Todas las piedras gastadas, ofizio horrekin,
Se afila suavemente, txistu pixkatekin.
Me gusta hacer merienda, nire lagunakin,
Cuando no hay besugo, kabratxoriarekin.
Cogidos con el anzuelo, ta tollan gibelakin,
Se hace un buen guisado, patata biekin.*

Ez dakit nori entzun nion behin, eta
hori etorri zait burura: ezagutzen ez
dena ez da maitatzen. Maitatzen ez de-
na ez da defendatzen. «Josu, bihar ere
etorri!», agurtu nau Justok. Bai, gustu
handiz.



Irati ARRIOLA
Psikologoa

Artea, norberaren ispilu eta bizitzarako gida

Gauzatu diren hainbat ikerketaren arabera, gazteen osasun mentala geroz eta egoera larriagoan aurkitzen da munduko toki askotan, eta COVID-19ak eragindako pandemiaren ondoren, areagotu egin dira adingabeen artean buru-osasunarekin zerikusia duten arazoak. Horren islatzat har daitezke, adibidez, suizidio tasak. Espainiako estatu mailan, 2022 urtean suizidioak eragindako heriotzen %65,9 40 urte baino gutxiagoko pertsonak izan ziren, eta horien %20, 5-14 urte arteko haurrak. Ukaezina da egoera horri berandu baino lehen aurre egiteko premia dagoela, eta uste dugu heziketak funtsezko zeregina izan dezakeela testuinguru horretan.

Pertsonaren garapen fisikoa, kognitiboa eta soziala bizitza osoan zehar ematen bada ere, haurtzaroan eta nerabezaroan gertatzen dira aldaketa nagusiak. Bilakaera horrek estres maila altua eragin dezake; are gehiago, aldaketa horietara egokitzeko zailtasunak agertzen direnean. Heziketa aproposak eraldaketa horretara ederto egokitzeko prozesua erraz dezake, identitate sendoak eraikitzen lagun baitezake, eta, ondorioz, pertsonen bizikalitate maila hobetu. Artearen bidezko psikoterapia dugu horretarako tresna egokia.

Arte-terapia garapen emozionala, mentala zein fisikoa sustatzen duen psikologiaren adarra da. Batzuetan hitzeko komunikazioa zaila izan daitekeela kontuan izanik, gaztetasunean bereziki, arte-hizkuntza

hainbat pentsamendu, emozio eta esperientziaren adierazpena erraz dezakeen baliabide boteretsua izan daiteke. Programa artistikoen bitartez, adingabeek hainbat gaitasun garatzeko aukera izan dezakete. Esaterako, komunikazio-trebetasuna hobetzeko, norbere buruarekiko konfiantza areagotzeko, edota gatazken ebazpen egokia egiten ikasteko. Horrez gain, haien autonomia handitu, gaitasun sozialak hobetu eta autoadierazpenerako modu positiboak aurki ditzakete.

Hala nola, ohikoa da buztinarekin lan egitea, materialaren izaera organikoak zentzumen guztiak aktibatzen dituelako prozesu oso aberasgarria eraginez. Subjektuak barnean duena adierazteko modu alternatibo paregabea aurkitzen du, eta horrek segurtasuna eta autoeraginkortasuna areagotzen dituela egiaztatu da. Marrazketak, bestetik, lasaitasuna, hausnarketa eta arreta susta ditzake; eta irudikatzen den hori, pertsonaren bizipen, beldur, edota desiren informazio iturri izugarria izan daiteke.



Arte-terapia garapen emozionala, mentala zein fisikoa sustatzen dituen psikologiaren adarra da. GETTY IMAGES



Prozesu sortzaileetatik eratorritako produktua norberaren irudiaren ispilu bilakatzen da. Hala ere, artelanaren emaitzari baino, sormen prozesuari ematen zaio garrantzia; izan ere, materialekin sortzen den elkarrekintzak hainbat sentimendu eta oroimen azalera ditzake eta prozesu terapeutikoa gida dezake. Arteak gure kontzientetik at dagoen edukia esploratzeko eta komunikatzeko ahalmena du, alderdi emozionala oso kontuan izanik. Alegia, emozioek, besteak beste, gure gaitasun kognitiboak, osasun fisikoa eta lanerako errendimendua baldintzatzen dituzte. Adimen emozionalak horiek era egokian erabiltzea ahalbidetzen du, norberaren espresatzeko moduari dagokionez, baita bestearekin egoteko erari dagokionez ere. Hortaz, artearen bidezko psikoterapiak autoezagutza zein oreka emozionala sustatzen dituela esan genezake.

Laburbilduz, bizitzan zehar gertatzen diren arazoak eta gorabeherak ez dira sorginkeriaz desagertzen, baina prozesu terapeutikoen horiei aurre egiten lagun dezakete estrategia berriak garatuz. Arte-terapiak bereziki, ez-hitzeko hizkuntzaren espresioa sustatzen du, eta hori baliabide indartsua da bizipenak era ezberdinean adierazteko aukera ematen duelako. Izan ere, prozesu bisualak, korporalak, pertzepziozkoak, sinbolikoak eta kognitiboak eragiten ditu, eta horiek guztiak hitzeko hizkuntzaren osagarri bilaka daitezke. Oro har, esperientzia artistikoak azaldutako maila guztien integrazioa errazten du, eta horrek ongizate holistikoa ekar dezake. •

{ koaderno } **Xabier IZAGA GONZALEZ**

Auschwitz gogoan, gaur egungoa normalizatuta

Armada Gorriak Auschwitzko kontzentrazio esparrua liberatu zueneko 80. urteurrena oroitu dute aste honetan munduko hainbat agintaririk. Ekitaldira ez zuten Errusiako ordezkariarik gonbidatu. Putin edo Gobernu horretako inor ez dira, nonbait, duela 80 urteko sobietarren ordezkari egokienak. Bat nator. Eta Zelenski? Garai hartan Ukraina Sobietar Batasuneko errepublika baitzen. Eta Netanyahu edo Israelgo Gobernu? Esparru hartan izan zirenen ordezkariarik egokienak al dira? Edonola ere, Netanyahu gonbidatuta zegoen.

Antisemitismoak eragin omen zuen holokaustoa. Juduak gaitz guztien kausatzat jo zituen nazismoak —eta naziak ez ziren askok—, juduak eta ijitoak, eslaviarak, afrikarrak, asiarrak... sobietarrak, alemaniar komunista eta sozialdemokratak, eta homosexualak... Arrazismoak eragin zuen holokaustoa batez ere, Israelgo Estatua palestinarren aurkako garbiketa etnikoa egitera eraman duen supremazismoak nola.

Hannah Arendt filosofoak esan zuen Europako holokaustoa gizateriaren aurkako krimena izan zela, eta juduak ez direla hark eragindako minaren jabe bakarrak. Izan ere, holokaustoa biktimak juduak baino izan ez balira ere, gizateriaren aurkako krimena izango zatekeen. Hannah Arendt judua ez omen dute oso maite Israelgo Estatuan, eta ulergarria da, biktimek ez bezala biktimitasunak nahi duen egiak errentagarria izan behar baitu egia izatekotan.

Europako Kontseilua antisemitismoaren gorakadarekin kezkatuta agertu zen astelehenean. Ultraeskuina Europako instituzioetako sukalderraino sartu duten horiek arrazismo eta xenofobia mota guztiak salatu zituzten beren adierazpenetan.

Holokaustoa. Euskaltzaindiaren hiztegiak hala dio adiera batean: «Gizakien hilketa handia, batez ere Alemania nazian juduekin egin zena», eta Espainiako Errege Akademiak: «*Gran matanza de seres humanos*» (Gizakien sarraski handia). Gaur egun sionistek egiten dutena, baina horren aurkako protestak edo iritziak antisemitismotzat jotzen ditu Europako Batasunak.

Ospitale bat suntsitu izan dutenean, kezka agertu dute Europako agintariek; hala ere, Netanyahuaren trikimailu merkeari jarraitzen diote lotsagalduek: genozidioaren salaketa antisemitismoa da, eta nazien pare jartzen du salatzen duena. Europa demokratikoak, hark bezala, defentsarako eskubidea aldarrikatzen du, edozertarako zilegitasuna ematen duen berebiziko eskubidea. Horra genozidioaren normalizazioa. «Gaiz-

Antisemitismoaren gorakadarekin kezkatuta, ultraeskuina Europako instituzioetako sukalderraino sartu duten horiek arrazismo eta xenofobia mota guztiak salatu zituzten

kiaren hutsaltasuna» terminoa erabili zuen Hannah Arendtek, jakinekoa denez, holokaustoa hizpide.

Bitartean, munduko ultraeskuina, AEBetatik Errusiaraino tradizio antisemita duen eskuina, sionisten alde agertzen da orain. Denak ere, (bakan batzuen) askatasunaren izenean, berdintasunaren bizkar. (Askatasuna eta berdintasuna elkarren osagarri gisa ulertzen zituen Arendtek. Haren ustez, askatasuna berdinen artean gauzatzen da).

Ez dira garai onak, eta ez datoz hobeak. Ez dezagun pentsatu ez direla hona iritsiko. Eta ez Errusiatik, hain zuzen ere. •

«Gure haurrentzat onena nahi izateagatik gaizkile moduan tratatu gaituzte»

Zarauzko Salbatore Mitxelena Ikastolak 140.000 euroko isuna jaso du 2023-24 ikasturtean, Hezkuntza Sailak matrikulazio-kopurua jaistearen ondorioz bertan matrikulatu ezinik utzi nahi zituzten zortzi familiak onartzeagatik. Albisteak amorru handia sortu du ikastolako komunitatean, baina zorionez familia horiek ikastolan jarraitzeko aukera izango dute, itunetik kanpo izan arren. Olatz Zubimendi zuzendaria, Inhar Agirrezabal batzordeko kidea eta Ibai Redondo familia horietako bateko gurasoa elkartu ditugu egoeraz lasaiago hitz egiteko.

Astea bete da isunaren berri publikoki eman zenutenetik [elkarrizketa asteartean egin da]. Zer erantzun jaso duzue jendearen aldetik?

Olatz Zubimendi: Jendeak lehenik eta behin aipatu didana da kopuruarena, 140.000 euro. Izugarria dela. Eta gero, babes sentitu dugu, babes handia. Beste ikastolena, herrian bertan ere bai. Asteburuan kalera aterantzen eta jende asko hurbildu zitzaidan babesa erakustera, eta ez ikastolakoak bakarrik, beste ikastetxe batzuetako gurasoak ere bai. Nik hala bizi izan dut.

Inhar Agirrezabal: Nik ere sentsazio antzekoa izan dut, baina kanpoko erreakzioak ez zaizkit horrenbeste iritsi. Horrenbestekoa izan da zigorraren dimentsioa eta horren lekuz kanpokoak, ezen agian jendea apur bat isiltzea ere ekarri duen. Erreakzio horiek jasotzeko zain bezala nago. Zigor honen atzean eztabaidatu beharreko gai asko daude, eta nik hori botatzen dut faltan.

OLATZ ZUBIMENDI, INHAR AGIRREZABAL ETA IBAI REDONDO

ZARAUZKO IKASTOLAKO ZUZENDARIA, BATZORDEKO KIDEA ETA GURASOA

140.000 euroko isuna beren seme-alabak

Zarauzko Ikastolan matrikulatu nahi zituzten familiei atek zabaltzeagatik. Lerroburua beldurgarria da. Egun batzuk igarota, bertako ordezkari batzuekin bildu gara gertatutakoa patxadaz aztertzeko.

Asier AIESTARAN

Baina elkartasuna ere bai, noski. Guretzat egun bereziak astelehena izan zen, etxe barruan azaldu genuelako egoera. Asteartean egin genuen publiko prentsaurrekoan, hor gaiak beste dimentsio bat hartu zuen. Eta ostiralean, Euskal Herri osoko ikastolatan egindako elkarretaratzeak ikusi eta babes mezuak jasota, ba mugimendu handi baten parte garela sentitu genuen.

Ibai Redondo: Gure kasuan, guraso bezala, bi urte hauek gogorak izan dira. Zuzendari-tzarentzat ere bai, eta gure haurren irakasleentzat zer esanik ez. Oso gaizki tratatu gaitu Hezkuntza Sailak. Gure haurrentzat onena nahi izateagatik gaizkile moduan tratatu gaituzte. Aldiz, guk bere garaian aurrera egitea erabaki genuen, eta bi urteren ondoren ikustea ikastolen konpromisoa eta babes hori sentitzea oso garrantzitsua da. Asko hitz egiten da zaintzaz, eta gu ikastolan oso ongi zainduak sentitu gara, oso egoera bortitz batean gainera.

Guk albistea jaso genuenean, bi sentsazio kontrajarri izan genituen. Alde batetik, poza, gure haurrek ikastolan jarraitu ahal izango dutelako, eta beste aldetik haserre handia, bi arrazoiengatik. Lehenik eta behin, 140.000 euro horiek Ipar Euskal Herriko edo Nafarroa hegoaldeko ikastolara bideratu beharrean honetara bideratu beharko direlako. Eta bestetik, oso injustua iruditzen zaigulako, ez diogulako azal-

penik aurkitzen. Arazorik ez zegoen lekuan arazo bat sortu delako.

Ikastolak konpromisoa hartu zuen zaurgarritasun tasak orekatzeko ikasleen elkartrukea betetzeko. Gure haurren gela hiru plaza zeuden, bi bete ziren, baina gerora guraso gehiago etorri dira haurra ikastolan matrikulatu nahi zutenak, zaurgarriak barne, eta ezin izan dute. Zeren guretzat bi urte gogor izan badira, zaurgarri horiek zer esango dute? Ikusita zein zen panorama, hasieran gurekin zeuden familia batzuk beste ikastetxe batzuetara joan dira. Beraz, zaurgarritasunari aurre egin ez, zaurgarritasuna areagotu egin du erabakiak.

Gaia atera denez, hemen argitu behar da, dekretuak zeresan handia eman duen arren, arazoa ez dela inoiz zaurgarri kopurua izan. Ikastolaren jarraiera beti izan da ikasle guztiak eskuzabalik hartzearena.

O.Z: Hiru, zortzi edo hamar ikasle zaurgarri. Guk ez dugu inoiz mugarik jarri alde horretatik. Irekita gaude etorri nahi duena jasotzeko.

I.A: Garrantzitsua da argi uztea legean jasota zeuden ikasle zaurgarrien inguruko eskakizunak bete egin dituela Zarauzko Ikastolak. Gero analisisian sartu gaitzeko: ea neurri horiek egokiak diren, ea beste zerbaitekin osatu behar diren, ea kiroldegia edo musika eskola ere segregatzaileak diren edo ez... Gai asko daude hor atzean komunitate bezala herriarekin lotzen gaituztenak eta guk ere zerbait eskaini

behar diogu herriari. Herri kohesionatu bat nahi dugu, euskaratik. Ikastolek hala nahi dute eta Salvatore Mitxelenak konpromiso hori dauka. Egin dezagun ariketa hori, baina ez dezagun mugatu eztabaida horretara. Esan bezala, ez daukalako zerikusirik. Alde bate-tik, gela kopuruaren muga dago, eta bestetik, ikasle zaurgarrientzat proposatzen diren soluzioak; eta horiek ikastolak bete egin ditu. Ikasle zaurgarri gehiago hartzeko ere prest gaude, barne beka sistema bat abiatu dugu orain dela urte gutxi, harrera plan bat ontzen ari gara ikastola barruan... Bada interesatzen zai- gun gai bat eta heldu behar dioguna komunitate bezala.

I.R: Egia da Zarautz ez dela oraindik herri horren anitza. Badaude inguruan aniztasun gehiagoko herriak. Baina aniztasun hori iristen ari da eta ikastolak horretarako prestatu behar du. Anitzagoa izateko, sektore sozial berrietara hobeto iristeko, eta gure konpromisoa zentzu horretan erabatekoa da. Badakigu ikasle gehiago iritsiko zaizkigula, orain dela gutxi iritsi da gure alabaren gelara Hego Amerikatik beste ikasle bat. Kontua da bi lerro edukita ez daukagula lekurik, ratioeta- tik kanpo gaudela. Horregatik diot segregazioaren aurkako neurria baino segregazioa areagotzen duen neurria izan dela. Hiru gela izanez gero, jarraitu ahalko genuke ikasle berri gehiago hartzen.

O.Z: Hiru gela izango bagenu- tu, hiruko ikasleko kupo hori izan beharrean askoz gehiago jasotzeko aukera izango genuke. Eta horrekin batera, argi utzi nahi dugu familia hauek itunetarako ez zenbatzea ez dela ikastolari jartzen zaion zigor bat, zigortzen direnak zu-



Argazkiak: Maialen ANDRES - Gorka RUBIO

«Akats bat zela pentsatu genuen [50 ikasleko muga] eta alegazioa sartu genuen, baina oso argi zuten ez zirela mugituko. Orduan borondatea egon balitz hau konpontzeko, hortxe geratuko zen dena»



zenean haurrak direla. Hori oso garrantzitsua da: haur guztiek jaso dute zigorra.

Denboran atzera eginez. Nola gogoratzen dituzue 2023ko egun eta aste haiek? Hasieran konpondu zitekeen akats bat zirudien, baina nahiko azkar konturatu zineten Hezkuntza Sailak ez zeukala atzera egiteko asmorik.

O.Z: Guk akats bat zela pentsatu genuen eta sartu genuen sartu beharreko alegazioa, baina oso argi zuten ez zirela mugituko. Eta hortik dator arazo hau dena. Orduan borondatea egon balitz hau konpontzeko, hortxe geratuko zen dena, baina ez zen hala izan.

I.A: Nik puntu horretan bereziki goraiatu nahiko nuke zuzendaritzaren lana. Arazoa eman aurretik jada identifikatu zuten gerta zitekeena. "Ai-

zue, hemen arazo bat etor daiteke", horixe izan zen lehen komunikazioa Zarauzko Ikastolaren eta Hezkuntza Sailaren artean. "Gehienez 50 ikasleko muga jarri diguzue, lau zenbaki sinple egin ditugu, eta aurreikusten dugu 55 eskaera jasoko ditugula". Hor egon da zuzendaritzaren lana arazoa aurreikusten eta hasieratik borondate osoa erakusten, etor zitekeen arazo horri konponbide bat emateko. Eskaintza bat ematen egon daitekeen eskaera horri. Hain zuzen ere, arauan bertan jasota dagoen bezala: "Egokitu eta doituko dugu kopurua eskaeraren arabera". Eta komunikazio horiek matrikulazio epea hasi baino lehen egin dira.

O.Z: Bai, bai, hasi aurretik. Guk berehala ikusi genuen historikoki herriko haurren %30 inguru jasotzen genuela eta ja-

rritako muga horrekin ezingo geniola eskaerari erantzun.

I.R: Guk buelta asko eman dizkiogu kontuari. Egia da orokorrean jaiotze-tasa jaisten ari dela EAEn eta agian gela gutxiago beharko direla, baina herri konkretu bat handitzen ari bada? Astigarraga, adibidez. Handitu egin bada, ba institutu berri bat behar dute, normala den bezala. Eta Zarautz oraindik handitzen ari den herri bat da. Etxe berri pila bat egin dira, tartean babes ofizialeko batzuk ere bai, eta horietara etortzen ari dira guraso gazteak, umeak izateko garaian edo ume txikiekin. Pentsatzekoa da arauak dioen "doitu eta egokitu" hori horrelako kasu berezietarako izango dela. Ikusi da ez dela arazo handirik sortu beste herrietan. **I.A:** Eta badirudi muga beti ikastolari jartzen zaiola, tantaka-



tantaka. Eta hurrengoan 30 matrikulazio izango bagenitu, ba agian beste koska bat jateko baliatuko litzatekeela. Pixkanaka, hazteko edo bizirik jarraitzeko gure espazioa jaten ari dira. Eta guk horri egin genion planto, ikastolak itotzera zetorrela sentitu genuen neurri bati.

Egoera horren aurrean erabaki zailak hartu behar ziren. Bai familien aldetik eta baita ikastolaren aldetik ere.

I.A: Esan behar da ikasturte hasiera iritsi zela eta jarrita zeuden azken errekursoek oraindik erantzunik ez zeukatela.

O.Z: Iraila ongi sartuta jaso zuten batzuek erantzuna. Noski, gurasoek pentsatzen zuten errekurso horiek onartuko zirela. Beraz, pentsa zer egoeratan zeuden guraso horiek, ikasturtea hasita eta beren seme-alabak nora eramane behar zituzten jakin gabe. Egoera hori ere ez zen normala izan. Eta prozesua orokorrean izan da zaila eta gogorra guztiontzat.

Elkar babestuz aurrera egin dugu, baina...

I.R: Hasiera oso zaila izan zen gure etxean, eta besteetan ere bai. Gure kasuan, haurra ikastolara ekartzeko erabakia arrazoi pedagogiko-ideologiko eta sentimentalengatik hartu genuen. Pedagogiko-ideologiko, ikastola delako hezkuntza proiektu nazional bakarra eta ikusten dugulako euskara arriskuan dagoela Ipar Euskal Herrian eta Nafarroa hegoaldean. Hezkuntza publikoaren proiektua ere oso aintzat hartzen dugu, uste dut kristoren lana egiten ari dela eta beharrezkoa dela indartsu egotea. Baina guk ikastola aukeratu genuen, eskola iristen ez den eremu geografiko horretara iristen delako. Eta EAEko ikastoletatik Ipar Euskal Herriko eta Nafarroa hegoaldeko ikastolak mantentzen direlako. Proiektu pedagogikoarekin ere bat egiten gurelako. Eta sentimentala, bereziki bikotearen kasuan, ikastolarekin lotura handia zeukalako.

«Argi utzi nahi dugu familia hauek itunetarako ez zenbatzea ez dela ikastolari jartzen zaion zigor bat, zigortzen direnak zuzenean haurrak direla: haurrek jaso dute zigorra»

Orduan, ezezkoa jaso genuenean, gure etxeko paretak gainera erori zitzaizkigun, nolabait. Ez beste proiektuak ez zaizkigulako gustatzen, baizik eta guk ikastolaren aldeko hautua egin genuelako.

I.A: Une hartan, beraien ezinegon horretatik, familiak izan ziren erabaki bat hartzera bultzatu gintuztenak. Esaten ziguten, "iraila gerturatzen ari da, emaguzue berme bat hurrengo ikasturtera begira". Kontuan izan behar da maila osoko arazoa zela. Zenbakien zozketa hori gorabehera, berez edozein familia izan zitekeen kanpoan geratzen zena, eta polita izan zen HH2ko gurasoak elkartuta ikustea. Lehen bilerak ederrak izan ziren, alde horretatik. Gero, egia da, hortik 540 familiako komunitate batera igarotzeak eta guztien artean horrelako erabaki bat hartzeak baduela bere konplexutasuna. Nik zalantza asko nituen: isilean ibili behar dugu, hobe da publiko egitea...

O.Z: Nola bideratu horretan bazegoen kezka. Kezka familia horiengatik, kezka ikastolagatik... Dena hartu behar zen kontuan eta ez zen erraza izan. **I.R:** Ariketa konplikatuak izan da. Gure haurren irakasle batek aipatzen zigun bere aita ikastolaren sortzaileetako bat izan zela, eta honekin gogora etorri zaiola bere aitak ikastola sortzerakoan bizi izan zuena. Zeren gogoratu behar da ikastolak, eta eskola publikoak ere bai, legez-kotasunaren gainetik igaroz egin duela aurrera. Eta eskerrak! Ikastolak Jaurlaritza baino lehenago sortu ziren, 1936ko Jaurlaritza baino lehen. Eta beti egin dute legez-kotasunaren gainetik aurrera, herri zapaldu batean, kultura zapaldu batean, hezkuntza zapaldu batean, legez-kotasunaren barruan ezingo zutelako bidea egin. Ipar Euskal Herrian orain dela gutxi arte alegalak izan dira ikastolak. Noski, ez duzuna espero da 2025. urtean horrela ibili behar izatea. Baina egia da horrelako

eraso baten aurrean komunitatea trinkotu egiten dela, eta guk sekulako babesa sentitu dugu. Eskertzekoa da, zeren guretzat gogorra izan da, baina beste gurasoentzat ere bai. Haurrak erai-kinez aldatu behar izan dira, ume handiagoak dauden eraikina ekarri... Beste gurasoen babesa sentitu dugu, eta beste ikastetxe batzuetakoena ere bai.

Eta aurrera begira zein da panorama? Egoera hau errepikatuko liteke?

O.Z: Ba bai, zoritxarrez berriz gerta liteke.

I.A: Oker ez banago, sei urteko planifikazioan hiru lerroko ikastola izaten jarraitzen dugu, baina agindua berriz ere bi gelakoa dator, 50 ikasleko mugarekin.

I.R: Nik nabarmenduko nukeena da borroka bat irabazi dugula, gu zortzi familiok hemen egotea, eta oso garesti irten dela, baina bigarren borroka bat irabazi behar dela: ikastolen proiektua aitortzea. Hiru lerro behar baditu, hiru; bederatzi behar baditu, bederatzi. Aitor-tu behar da eskola publikoak egiten duen lana, *chapeau*, eta aitortu behar da ikastolek egiten duten lana, eta zein beharrezkoak diren. Eta borroka horretan ez dago bakarrik inplikaturik Zarauzko Ikastola, Ikastolen Mugimendu guztia dago. Inportantea delako, ikastolen proiektuarekiko errespetua dago jokoan. Eta kasu honetan, Jaurilaritza ez da ari errespetatzen ikastolen proiektua. Zeren beste ikastetxeetan ez dago arazo hau. Nahi duena joaten da eta nahi duena ez, eta gu pozten gara horrela delako. Hemen ikastolen proiektua zigortzen ari dira. Beraz, pozik gaude, baina haserre eta minduta ere bai.

O.Z: Ikastolen zazpigarren batzarrean halaxe erabaki zen:

«Borroka bat irabazi dugu, gu zortzi familiok hemen egotea, eta oso garesti irten da, baina bigarren borroka bat irabazi behar da: ikastolen proiektua aitortzea»

ikastolara etorri nahi duen ikasle eta familia ororen nahia bete eta errespetatzen saiatuko dela ikastola. Borroka horretan jarraitu behar dugu, hori da gure nahia. Zarauzko Ikastolak ez dizkio ateak inoiz inori itxi, eta horrela izaten jarraitzea nahi dugu.

I.R: Kontrakoa. Guk nahi dugu sektore berrietara iritsi, orain arte iristeko zailtasunak izan ditugulako. Sekulako ahalegina egiten ari gara beka sistema berri baterako dirua lortzeko. Gogorra da 140.000 euro isun baterako lortzen ibili behar izatea beka sistemarako erabili beharrean. Zeren horretan ari ginen, adibidez.

I.A: Aurtengoari dagokionez, EAEko ikastoletan eskaintza baino eskari handiagoa baldin badago, uste dut gai honek beste dimentsio bat hartuko duela. Hori da nire sentsazioa, edo hori nahiko nuke gutxienez.

O.Z: Pentsatu nahi dugu legean aipatzen den doikuntza

hori aintzat hartuko dutela eta borondate hori egongo dela.

Dirua biltzeko kontu bat zabalik dago jada, eta ekintza desberdinak martxan jarriko direla aurreratu duzue. Horretan hasteko garaia da?

I.A: Atzoko bileran [astelehenean] jende asko bildu zen eta lantalde pila bat jarri dira martxan. Argi utzi nahi dugu isun honek ikastolako ohiko dinamika, ekarpen, egiturazko gastu eta abarretan ez duela eraginik izango. Ezohiko eta salbuespeneko egoera batean gaude, eta erantzuna ere modu horretakoa izango da.

I.R: Oraindik ekintza zehatzik ezin dugu aurreratu, baina bilera-aren ostean herrian ere bai, hainbat elkarte eskura dituzten baliabideak eskaintzeko prest agertu direla. Eta elkartasun hori jasotzea polita da.

O.Z: Gertatu denari alde positiboa bilatzekotan, komunita-

tea elkartu eta batzeko aukera hori litzateke.

I.A: Badago sektore bat Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publiko barruan ikastolak etsai bezala ikusten dituen. Eta uste dut askotan helburu berak ditugun sektoreak izan gaitzkeela. Elkarrekin joan gintezkeela, eta datozen arazoei elkarrekin erantzun borobilago bat emateko aukera edukiko genukeela eskutik helduta joanez gero. Baina eraso horiekin iruditzen zait ikastolen familia apur bat makurtzen joan dela, konplexuz betetzen. Prozesu nahiko gogorra da, zentzu horretan. Ea baliatzen dugun hau apur bat indartzeko, sendotzeko.

I.R: Pentsatu behar da ikastolak, dena oso ondo eginda eta matrikulazioa oso ondo joanda ere, sistemaren %12-13 inguru izango garela. Asko jota %15. Eta beste %85a? Hau ezin da lehia terminoetan planteatu. Herri txikia gara, hizkuntzaren eta kulturaren arloan sekulako erronka daukagu, eta handiagoa dator. Ez migrazioagatik bakarrik. Teknologia berriak, globalizazioa... Sekulako erronka daukagu eta hau elkarren aurka ezin da egin. Elkarrekin egin beharko dugu, eta %100ean sinistuta diot. Zubiak eraiki behar dira proiektu desberdinen artean, elkarlanean egin behar da aurrera, eta herri ikuspegi batekin. Ikastolen arazok beste komunitate guztien arazo izan behar dute, eta beste ikastetxeen arazok ere komunitate guztien arazo izan behar dute. Bestela hau pikutara doa. Ni irakaslea naiz eta ikastetxeetan ikusten da, gero eta konplikatuagoa da egoerari aurre egitea, egoera oso konplexua da. Teknologia berriek duten pisua gazte eta haurrengan... Hau ez da txorakeriatan eta elkarrekin mokoka ibiltzeko garaia.



Ilbeltza

Itzea URKIZU ARSUAGA

Ilbeltza joan da eta hemen da inauteri garaia. Lurra kolpatzekoa, dantzatzekoa, naturari gogoraztekoa iratzarri behar duela, bizitza deituriko honek aurrera jarraituko bada. Hasi da lurra esnatzen, errituak dira berritu. Negua baita loa, atsedena, ezinbesteko itzaltze bat, sekula lorerik etorriko bada.

Erraza dirudi maskarak, joareak edo mozorroak jantzita natura esnatzeak, berez etorriko dela badakigun horri modu sinbolikoan deitzeak, geronek ere gogora dezagun bagarela eta izango garela. Hain bukolikoak eta poetikoak bali-

ra esnatze guztiak... Ba, ez nintzateke testu hau idazten ariko.

Gure amonak urteko lehenengo hilabetea izendatzeko erabiltzen zuen hitzaren antzera igaro baitzaigu hilabetea bera: beltz. Dramatikoa, akaso, begirada zilborretik mundura altxatzen duen edonorentzat; argigarria ere bai, erraie-tatik zutabera botaka egiteko.

Inork ez digu erakusten guraso izaten: norberak asmatu behar du bere erle-dantza propioa, zaintzaren eta hazkuntzaren neguak eta inauteriak egoki programatu, eta udaberrirako liliak polinizatzeko. Erlama batek ez du

besterik nahi: bere erletxo txikiak lorez lore usainean ibitzea, nektarraren estasian, eta hala behar dutenean erlauntzara biltzea, besarkada ez-titan. Erle zaharrentzat bigunegia den abaraskako gelaxka guztietara zabaltzea behinola bere gorputza izan zen etxearen teilatua.

Beti ez du lortzen, ordea; tarteka, erle txikiak kabitu ezinda bilatzen ditu erlauntzan, polen gozotan gazi, edozein dantzari entzungor. Eta, orduan, erlama ziztadaka hasten da; ez beti norabiderik egokienean, baizik eta ahal duen bezala.

Etorriko ahal dira loreak. •

Larrialdetik indarraldira

**Miren AZKARATE
BADIOLA**

Euskararen egoera larria hizpide da azken aldian, oldarraldi batez eta alarma gorriaz ari gara hizketan behin eta berriro. Hala da, bai, ez da gutxiagorako, datuei begiratzen badiegu behinik behin. Eta ez bakarrik datuei, egunerokoan bizi ditugun egoerei erreparatuta ere antzeko konklusioak aterako ditugu. Asko dira euskaldun orok egunero pairatzen ditugun gure hizkuntzarekiko erasoak, esango nuke zoritxarrez ohitu egin garela eta askotan erreakzionatzeak ere pereza ematen digula. Baina ni bereziki asaldatzen naiz haurrak tarteko badaude, eta hau da justu aurrekoan nire haurrarekin bizitu nuen egoera, oraindik ere sumintzen nauena.

Osasun zentro bat, pediatriako zaitia, erradiografia bat egiteko zain: itxaron gelan beste ama bat haur txiki batekin eta ni nire haur zaharrena-rekin. Datu moduan, Oiartzun eta Oreretako haurrak (zein helduak) artatzen dituen zentroa, bi herri euskaldun, eta bertako haurren portzentaje oso altu batek euskara hutsean egiten ditu bere ikasketak. Erizain gazte-gazte bat haurrari zuzentzen gaztelera hutsean, azalduz zer egingo zioten bakarka gela batean. Ni erizainari gaztelera esanez haurrak ez zuela gaztelera ulertzen eta ea pasa nintekeen haiekin itzulpen lanak egiteko, eta hara nire sorpresa, erizaina euskara polit batean haurrari zer egingo zio-

ten azaltzen aditu nuen. Beste ama eta ni harri eta zur, "euskaraz dakit!", baina bigarren erizain bat ere atera zen nigana azalpen batzuk ematera, gaztelera haurrari, eta haurra azaldu zenean, egin zioten erradiografia ikusi nahi nuen esateko, azken erizain hori ere euskara garbian hizketan hasi zitzaigun.

Ezin sinistu eta ezin jakin zer egin horrelako egoeren aurrean, argi dut euskararen osasuna txarra dela, ez bakarrik eraso eta oldarraldiagatik, baizik eta dakigunon utzikeriagatik. Euskarak milaka urte iraun ditu, gerrak, diktaturak eta denetariko egoerak tarteko. Dakigunok erabiltzen ez badugu, jai dugu! •

Laudio Ikastolako ikasle talde batek errefuxiatu sahararren kanpalekue-tara bidaiatu zuen pasa den abenduan, ikastetxeko hezkuntza proiektuan txertatutako kooperazio egitasmo baten barruan. Aaiunen egon ziren, Bucraa herrian, bertako familiekin astebe-tez elkarbizitzen. Laguntza humanitarioz beteriko 25 kiloko motxilak eraman zituzten haranzkoan, bertan uzteko. Bizipen eta ikaspenez betetako bagajea ekarri dute itzulerakoan.

Sentipen horiek guztiak partekatze gogoz agertu dira gazteak, 17-18 urte ingurukoak, esperientzia paregabea bizi izanaren sentsazioarekin, muturreko egoera bizi duen herri batean bizitzeak duen guztiarekin, eta gainera, bizimodua lehen pertsonan bizitzeak ematen duen ikuspegi hurbilarekin. Elkartasunak duen garrantziaz jabetuta, jaso duten eskuzabaltasunarekin eskertuta..., bizi dutena ez da soilik bidaia bat izan.

Adinak ere paper bat jokatuko du, seguruenik, sentsazio horietan. Ez da oso ohikoa izaten adin horietan kooperaziora bideratutako bidaia bat bizi ahal izatea. Azaldu dute markatzen duen esperientzia dela, eta «adin horrekin izan dezakezun begirada zabaltzen laguntzen» duela. Edozelan ere, bistakoa da aztarna uzten duen esperientzia bat dela. Azaroaren 29an hartu zuten hegaldia Aljeriaraino, baina lehenago hasi zen bidaia baten kontakizuna da hau. Aiaraldeko gazte talde horrek bizi duen «abentura» ez da Saharan izandako egonaldira mugatu.

Ez da mota honetako lehen esperientzia izan Laudioko ikastetxearentzat. 2009an eta 2010ean egin zuten lehen aldiz elkartasun-proiektua. Lehen es-



IKASLEAK SAHARAN

Elkartasun balioetatik hasita, ikaspenak dituen esperientzia baten kontakizuna

📁 JENDARTEA / Nerea GOTI

Laudioko batxilerreko ikasle talde bat Saharako kanpalekue-tan egon da astebetzez elkartasun proiektu bat gauzatzen. Lankidetzaren balioen ariketa izanik, bidaia prestatu, hegaldia finantzatzeko bideak bilatu eta eramandako laguntza antolatu dute. Esperientzia ahaztezin horretaz hitz egin dute GAUR8rekin.

perientzia horien ostean, urte batzuetako etengabeko bat izan zuten ekimenak, «egoera eta faktore ezberdinengatik», 2022-23 ikasturtean egitasmoa berpiztu zen arte. Gauzak horrela, herri sahararreko ordezkariarekin izan beharreko elkarlana berreskuratu eta osteraren forma hartzen joan zen egitasmoa, ikasleen bidaia berriak ahalbidetuz.

Batxilerreko bigarren mailako ikasleak dira istorioaren protagonista nagusiak. Errefuxiatu sahararrei emandako laguntza izan da azken helburua, baina arestian esan bezala, ibilbide luzeago bat izan duen esperientzia da Laudioko hau, eta kooperazioari eta hezkuntza proiektuari lotuta egon da. Errefuxiatu sahararren etxetan egin dute

egonaldia. Tokiko errealitatea, kultura zein historia bertatik bertara ezagutzeko aukera izan dute horrela, baina hango egoera eta azpiegitura ezberdinak ere ezagutu dituzte, eta laguntza humanitarioa eraman dute: medikamentuak, arropa, elikagaiak... Bertan, gainera, Rabuniko ospitalea, Bucraako Lehen Hezkuntzako eskola edota Erresistentziaren Museo Nazionala ezagutu dituzte, besteak beste; eta ordezkari ezberdinekin hitz egiteko aukera ere izan dute.

BALIOEN LANKETA

Amets Meatza proiektuko koordinatzailearekin hitz egin du GAUR8k, esperientziak eskatzen duen antolaketaz, bilatutako helburuez eta, behin Euskal Herrira itzulita, horretaz egiten duten balantzeaz hitz egiteko, proiektuak alderdi ezberdinak biltzen baititu.

Meatzak nabarmendu du herri sahararrearekin kooperaziora bideratutako ekimena dagoela proiektuaren muinean, baina

Sahararekin elkartasun proiektuan parte hartu duen ikasle taldea, irudian.
Raul BOGAJO | FOKU

urrunago joan nahi duen ariketa ere badela, beste ikasketa batzuk landu nahi dituena. Elkartasun eta lankidetzaren balioez gain, saharar herriaren egoera politiko eta sozioekonomikoa gertutik ezagutzeko aukera izan dute, euren errealitatearen antipodetan dagoen bizimodu bat ezagutzeko. Ziurtatu duenez, horrek guztiak «lehen eta geroa markatzen dituen» bidaia bat osatzen du, eta gazteei entzutea baino ez dago gogoeta baieztatzeko.

Bucraako azpiegiturak hobetzearekin batera, lankidetzaren balioetan hezi eta trebatzea bilatzen du esperientziak, saharar herriaren egoera era zuzenean ezagutzeak eta euren bizimodutik oso urrun dauden familiekin

izan duten elkarbizitzak zer pentsatu handia eman die.

Ikastolan bertan, eskola egun baten atsedenaldian egin du GAUR8k hitzordua ikasle horien gogoetak bertatik bertara ezagutzeko. Mahai baten bueltan eseri dira zuzeneko kontakizuna egiteko, bidaiaren prestaketaz, helburuaz eta izandako bizipenez hitz egiteko.

Bucraa herrian adinekoen eguneko zentroak duen baratza- ren hormak margotu dituzte ikasleek aurtengo bidaian. Egingo dako lan horrez gain, botikak, higienerako produktuak, arropa eta janaria ere bildu eta eraman dituzte. Bidaiaren antolaketa eta prestaketaren zati handiena gazteek eurek garatu dute; eta

«Uste dut bidaiak beste begirada bat ematen digula, baina hegazkinera igo arte bizitakoak beste ikaskuntza batzuk ditu, zenbat lan egin behar den, beharrezkoa den talde-lana...»

Elkartasuna eta auzolana daude proiektuak landu dituen oinarrizko kontzeptuen artean, ezinbestekoak direnak esperientzia bizi ahal izateko eta inguruan duen guztia antolatzeko

Amets Meatza Laudio
Ikastolako elkartasun
proiektuko koordinatzailea.
Raul BOGAJO | FOKU

bidaiaren beraren kostuari aurre egiteko finantzazioa lortzea zen ariketaren alderdietako bat.

LAUDIOREKIN SENIDETUTA

Bucraa herria Laudioko udalarekin senidetuta dago. Horrek pisua izan du herriaren aukeraketan, baina ez bidaiaren antolaketa garatzeko orduan. «Laudioko Udala herri horrekin senidetuta egon izanak helmugako herria erabakitzeko balio izan du, baina behin herria aukeratu, harreman berriak egiten eta sortzen joan gara, beharrak identifikatzen, guk ikastola moduan zertan lagun genezakeen zerrendatzen, hurrengo ikasle taldeek izan dezaten aukera modu batean edo bestean laguntzeko», azaldu du Amets Meatzak.

Beharren identifikazio egoiak berebiziko garrantzia dauka kooperazio proiektu batean. Esku hartzeak, gainera, ikasle talde baten aukeren artean egon behar du, eta denbora-mugak ere baditu, gainera. Azaldutakoaren arabera, proiektua berriartean, hasieratik sortu zen adinekoen eguneko zentroan laguntzearen beharra. «Han, egoera zein zen bertatik bertara ikusita, zentroak duen baratzea hobetzea adostu genuen, eta orduan erabaki genuen hurrengo taldearekin ortua babesteko itxiera perimetroan horma bat eraikitzea», gogoratu du bidaiaren koordinatzaileak.

Proiektuaren aurreko edizioan joandako ikasleek udalarekin margotu zuten, azken bidaian jarritako helburua eguneko zentroaren babestea izan da. «Haizea dagoenean edo umeak jolasten ari direnean eguneko zentroko nagusiek landatzen duten baratzea babestea izan da asmoa; paretak altxatzeko dirua bidali genuen eta bertara egindako bidaian margotu ditugu. Haiek eskatzen duten horri erantzutera joaten gara, edo, behintzat, erantzuten saiatzen gara, zeren batzuetan gauza batzuk ez dira ekonomikoki bideragarriak».

Hurrengo ekimen bat prestatzeari begira, dauden beharrak aztertu dituzte aurtengo bidaian; bertako ekipamendu ezberdinak edota eskola bera bisitatu dutenean, dauzkaten beharrez galdetu diete.

Bildu eta eramateko prestatutako janaria, botikak eta arropa ere ez da ausaz aukeratu, eta beharrezko askotariko produktuen presentzia bermatzen saiatu dira. Adibide gisa aipatu dute adinekoen zentroran eraman diren botikak kolektibo zehatz horrek dituen beharren arabera koak izan direla aukeratuak.

«Minerako medikamentu arruntak, glukosa neurtzekoak, tentsioa neurtzeko beharrezkoak... jende nagusiaren artean ohikoak diren medikamentuak izan dira eraman ditugunak. Haiek pasatzen dute behar duten gauzen zerrenda, baina une bakoitzean, egoeraren arabera, behar horiek ezberdinak izan daitezke. Aurten, adibidez, uholdeen ondorioz jende bati kalte egin dio hango urak, eta aurten, adibidez, Fortasec bezalako botikak eskatu dituzte bereziki», zehaztu du Meatzak.

«Etxeetan launaka edo bosnaka egoten garenez, saiatzeko gara elikagai eta medikamentu ez-





berdinak eramaten, botikak ez errepikatzeke, eta errezetarik behar ez duten botikak dira edo nola ere», aipatu du. Gazteek eramanez 25 kiloko maleta handian joan da laguntza humanitarioa.

Saharako kanpalekuen errealitate gerturatzea inpaktua duen esperientzia da edozein kasutan, baina talka are handiagoa izan daiteke mendebaldeko gazte batentzat. Hemengo errealitate hangora igarotzeak suposatzen duen talka bistakoa da haientzat, eta hala ere, ez dute faltan bota duten ezere inguruan inolako aipamenik egin. Aldiz, jaso duten eskuza-baltasuna azpimarratu dute guztiek. Detalle bat aipatzearen, nabarmendu dute harremanetan jarraitzen dutela hango familiekin.

«PENAREKIN ITZULI GINEN»

Mikel Garmendiaren esanetan, esperientzia aberasgarria da, du darik gabe, baina aipatu du ikaspen gehiago izan dituela bidaia. «Bertako egoera ikusita, ikasi dugu gu zortedun pertsonak garela, eta hona bueltatzean penaz itzuli ginen. Esango nuke ikaspen handiena dela bai Saharan bai errepresioa jasaten duten antzeko

herrialdeetan laguntza emateko prest egon behar garela, beharrezkoa dela laguntza eskaintzea horrelako egoeretan, eta gu laguntza emateko prest egon behar garela», gaineratu du.

Han bizitzea nolakoa izan zen galdetuta, errefuxiatuek egin zieten harrera eta jasandako tratua azpimarratu dute ikasleek. «Etxekoak bagina bezala tratatu gaituzte. Ez da berdina han egotea eta ez egotea, eta konturatzeko zara onena ematen saiatzen direla. Galdetuz gero etxekoari ea guk jaten genuena jan ohi zutena zen eta ezetz esan zidan», adierazi du Oihan Gorostiagak, Saharako familiek egiten duten ahalegina nabarmenduz.

Hango gazte batzuekin ere egon dira kontaktuan, baina hori ere hemengoarekin alderatuta oso bestelako bizimodua da. «Mutil gehienak Armadan zeuden», batzuk kanpoan ikasten, eta nesken artean, herrian zeudenak «etxean zeuden normalean, ezkontzea zen gehien helburua, baina batzuk ikasten ari ziren Tindufen», aipatu dutenez. Batzuek, gainera, argi diote prest egongo liratekeela parte hartzeko kooperazio proiektu gehiagotan.

Ikasleak Saharako Bucraa herrira egindako elkartasunezko bidaian.
LAUDIO IKASTOLA

«Bertako egoera ikusita, ikasi dugu guk zortea daukagula (...) Esango nuke ikaspen handiena dela Sahara eta errepresioa jasaten dute beste herriak laguntzeko prest egon behar garela»

Bueltan, informazio trasbasea egin dute ikasleek ikastetxean bertan, eta Ikastolako komunitatearekin, elkartasunezko beste proiektu bat garatzeko aukera sortu da

Egitasmoari esker elkartasunaren balioetatik edan dute, bertan jaiotzeagatik bakarrik dituzten pribilegioez jabetu dira, baina egitasmoak arlo gehiago landu ditu. Maialen Egia proiektuan parte hartu duen ikasleetako bat da. Azaldu duenez, bidaia ordaintzeko dirua ateratzeko kamisetak eta poltsak egin zituzten herriaren izenarekin eta prestatutako logoarekin. Material hori azokan saldu zituzten, txosna jarri zuten Gau Beltzaren egunean eta bertan bokatak saldu... eta horrez gain, botika eta janari bilketan hartu zuten parte. Ohiko produktuez gain, bidalketan eskola materiala ere jaso zela aipatu du.

Aurretik behar den prestaketa horretaz, Meatzak azaldu du «baiezkoa ematen denetik ikas-

kuntza prozesu» bat hasten dela, eta bide horretan lan handia egin behar izaten dutela: «Txandak egin, egutegia finkatu, ideiak proposatu, azoketan parte hartu, txapelketa antolatu...», eta diruaren kudeaketa eta antolaketaz ere arduratu behar dira.

Egitasmoaren koordinatzailearen esanetan, lan guztia egin da ere, ikasleentzat «markatzen duen bidaia» da. Errealitate bien arteko talkatik haratago, errefuxiatu sahararrekin izandako harreman xamurra ere nabarmendu du. «Oso pertsona hurbilak dira, oso eskertuak... eta horregatik ere uste dut badela markatzen duen bidaia. Eta ez bakarrik egonaldiak berak; etxe bakoitzak errealitate eta egoera bat dauka, ez daude guztiak egoera berean, baina uste dut begirada ezberdin bat ematen dien bidaia dela, gauzak baloratzeko orduan ere bai, ikusteko zenbat gauza dauz kagun soberan, zenbat erosi nahi ditugun inolako beharrik gabe...». Esperientziaren informazio trasbasea egin ondoren, ikasle taldeak identifikatutako beharretatik abiatuta, elkartasunezko beste proiektu bat dago bidean, Lehen Hezkuntzako (LH) 6. mailako ikasleekin, etenik ez duen elkartasun hari bat.



Itziar ALDABE ARREGI


Donostiako Informatika Fakultateko ikerlaria, UPV/ EHU

Erabili bai, baina ulertzen ditugu adimen artifizialean oinarritutako sistemak?

Adimen artifizialeko sistemek gero eta arrakasta handiagoa dute, testuak edota galderak «ulertu» eta sortzeko gaitasuna erakusten ari direlako eta, modu horretara, giza elkarrizketa bat simulatzea lortzen dutelako. Baina benetan ulertzen al dugu sistema hauen funtzionamendua? Ondo erabiltzen al ditugu teknologia hauek?

Hizkuntza-ereduetan oinarritutako adimen artifizialeko sistemak datu kopuru handiak prozesatzeko eta patroiak ikasteko diseinatuak daude. Sistema hauek ez dute "ulertzen" gizakiok ulertzen dugun moduan, baizik eta hitzen eta esaldien arteko erlazio estatistikoak identifikatzen dituzte, erantzun koherenteak sortzeko. Hori sare neuronal sakonen bitartez lortzen dute. Elkarrizketa adimentsua dirudien hori aurretik ikusitako datuetan oinarritutako iragarpen bat besterik ez da. Beren erantzunak oso gizatiarra badirudi ere, ereduak ez du ez kontzientziarik ez ulermenik ezta denbora errealeko informaziorik ere. Beraz, emandako testuinguruaren arabera, esanguratsuenak diruditen hitzak hautematen dituzte eta probabilitateetan oinarritutako erantzunak sortzen dituzte, bilaketarik egin gabe.

Zer esan nahi dugu honekin? Askotan sortutako erantzunak zehatzak, xeheak eta erabilgarriak badira ere, aurretik ikusitako datuetan oinarritutako direla eta ezin dutela eza-gutza berririk sortu, ezta gizakion sentimenduak edota asmoak interpretatu ere. Bere "adimena" informazioa modu eraginkorrean prozesatzeko gaitasunean datza, baina arrazoibide kritikorik edo ikusitako patroiak haratago errealtatea ulertzeko gaitasunik gabe.



Txinatik DeepSeek datorkigu, egun gutxi batzuetan oihartzun handia izan duena. DPA-EUROPA PRESS


Beraz, tresna hauen erabilera ona erabiltzaileen hezkuntza teknologikoaren baitakoa ere bada. Ezinbestekoa da beren mugak ulertzea: adimen artifizialeko eredu batek ez du sentimendurik, ezta jokabide etikorik ere, eta ez luke izan behar pentsamendu kritikorearen ordekoa. Erabiltzaileek sistemak sortutako erantzunak baloratu eta beren testuingurua kontuan hartu behar dute, baliagarritzat hartu aurretik. Erantzun bakarra ikusteak ez du esan nahi erantzun egokia denik.

Hemen bukatu nezake idatzia, baina testu hau idazten nabilen unean bertan, ChatGPTk webean bilaketak egin ez emaitzak emateko aukera eskain-

tzen duela ikusi dut. Uneko informazioa kontsultatzeko aukera eskaintzen hasi bada, hemen azaldutakoak eta bere funtzionamenduak ez dute zertan bat etorri. Hala ere, ezin dugu gutiz ulertu bere benetako funtzionamendua, sistema itxia delako. Baina Txinatik DeepSeek datorkigu, egun gutxi batzuetan oihartzun handia izan duena. Ikusi beharko da zer-nolako ibilbidea egiten duen, baina kode irekikoa izanik eta artikulu zientifiko zabala eskuragarri izanik, ikertzaileen lana da berriz ere haren funtzionamendua ulertzea eta gizarte osoari helaraztea zer diren eta zertarako diren puri-purian dauden sistema hauek. •

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



COYNE Y CIA. NAFARROAKO ARTXIBO NAGUSIA.

NAFARROAKO DIPUTATUAK, 1866AN

1866ko urtarrilean, Nafarroako Diputazioa partzialki berri zen, eta bertako kideak Iruñeko lehen argazki-estudioetako batean izan ziren, Coyne izenekoan. Urte bereko ekainean, Nafarroako Diputazioak Araba, Gipuzkoa eta Bizkaikoei proposatu zien unibertsitate bat sortzea, besteak beste, «...amor a las instituciones del solar euskaro» izango zuena. Elorz (Tafalla), Zabalza (Iruñea), Fortun (Lizarra) eta Calatayud (Agoitz) diputatuek bidali zuten unibertsitate proiektua, beste batzuekin batera, gainontzeko euskal aldundietara. Nafarroako Diputazioak martxan jarri nahi izan

zuen beste proiektuetako bat euskal banku bat sortzea izan zen. Coyneren argazkian, eserita agertzen dira Leon Eusebio Elorz, Tafallako diputatua; Nicasio Zabalza, Iruñeko diputatua eta Diputazioko presidenteordea; eta Fortunato Fortun, Lizarrako diputatua -laugarrena ezin izan dugu identifikatu-. Haien atzean ageri dira, zutik, Mauricio Bobadilla, Tuterako diputatua; Alberto Calatayud, Agoizkoa; Angel Saenz de Tejada, Lizarrakoa; eta Juan Jose Barberena, 1866ko otsailean Iruñeko diputatu karguaz jabetu zena.

030 bidaiari

naiz: -en bidaia aldizkaria euskaraz

Lurralde
berrietara
goaz



hurrengo
ostiralean
zure
kioskoan

1,50€

eta gainera...

NAPIER

ART DECO
ANTIPODETAN

ARGUNGUKO ARRANTZA JAIALDIA

IKUSKIZUNA ARRAIN ETA
KALABAZA ARTEAN

BERMUDA UHARTEA

GELTOKI ATSEGIN
BAT ATLANTIKOAN

IRUNBERRIKO ARROILA

IRATI ZAHARRAREN
TRENBIDEAN

ANGEL FERNÁNDEZ

BASAMORTUKO
ISTORIOAK

Begiradak Xajarat-al-Hayat, "Bizitzaren zuhaitza"-ren misterioa basamortuan; Nazareko itsasargia, olatu erraldoien lekuko

Egin planak 'Egin Bilbo grisa berriro', desagertutako hiria irudikatuz; 'Martetik Martera', historian, mitologian eta astronomian zehar bidaia

Munduan pasieran Giottoko freskoen zaharberritzea, Bardi kapera, errestituzio tailer bihurtuta; 'Michelangelo eta boterea', Vecchion...

